


Herririk Herri |6|

Okela eta Ardao Egunaren seigarren aldia ospatuko dabe bihar lurretan

Berbaz |9|

Inurri Eskaut: "Astialdi taldeen artean erreferente gara Durangaldean"



Erreportajea |16-17|

Berbaro Durangoko euskara elkartearen etorkizunera begira 20. urteurrenean

Grebak "jarraipen handia" izan dau Durangaldean

> Sindikatu abertzaleen esanetan, grebak arrakasta handia izan dau eskualdean.

> Manifestazinoak egin ziren atzo arratsaldean Durangon eta Elorrian.

2-3



Merkataritza-gune eta enpresa handietan be langile "gehienek" egin eben grebagaz bat. J. Fernandez

EAJko zinegotzi biren dimisinoa eskatu dau udalbatzarrak

Atxondo • Ezker abertzaleko zinegotzien botoekin onartu dabe eskaera. Beresasoian "legez kanpoko" baimenak emotea egozten deuse. EAJk jokabide bera leporatu deutso ezker abertzaleari. Ez dabela dimitituko jakinarazi eta "jazarpen politikoa" salatu dau alderdi jeltzaleak.

4

Zabaldu dabe liburutegi barria Kalebarrian

Durango • Herriko elkarteetako kideak izan dira Kalebarriko liburutegiko lehenengo bisitariak. Astelehenean inauguratu eben azpiegitura barria, eta martitzenean erabiltzaileentzako zabaldutako liburuak. Helburua 120.000 alera heltzea dela azaldu dabe udal arduradunek.

7

Antzerkia, elkar ulertzeko bide

KULTURA • Kultura desbardineta-ko dozena bat lagun batzen dituen Durangoko antzerki taldea ezagutu dogu asteon. Elkar ezagutzeko eta antzerki teknikak ikasteko biltzen dira eguenero.

13

Kulturaleko neskak Kopako finalean

KIROLAK • Durangoko Kulturalak Bizkaiko Kopako finala jokatu dau domekan Zorrozan, Getxoren kontra. Azken honek dira faboritoak, aurtengo ligako partidua guztiak irabazi ditueelako, baina gureak itxaropen tsu dagoz. Finalerdietan, oso lehia-tua izan den kanporaketan, Zornotza kanporatu dabe.

24

•Mañaria

Nekazal eta Artisautza Azoka egingo dabe domekan

6

•Zaldibar

Txotxongilo aisialdi taldea bertan behera iztea erabaki dabe

8

•Otxandio

Krisiari buruzko azken hitzaldia

4

EXCAVACIONES JON

MOTA GUZTIRAKO INDUSTRIALAK
IRONDAKINDEGIA

Jon Garinagoitia Gallastegui

Phon: 941 17 25 54 • 42299 4401 11664
Tel: 341 17 25 54 • Mobil: 689 44 00 00

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Greba "arrakastatsua" izan dela esan dabe sindikatu abertzaleek

Jarraipena %50ekoa izan dela dinoe deitzaileek; Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, greba %10-20 bitartekoa izan da



Grebagaz bat eginez, hainbat lagun batu ziren sindikatu abertzaleek deituta, manifestazinoan, Elorrión. Judit Fernandez.

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deitutako greba orokorren deialdiaren biharamunak datu zerrenda kontrajarriak itzi deuskuz. Durangaldeari jagokonez, ELA sindikatuko ordezkari Mikel Etxebarriaren berbetan, balorazioa "oso positiboa" da: "Salbuespenak salbuespen, Berriz eta Elorriora bidean dagoen poligonoe-tako enpresetako gehiengoak grebagaz bat egin dau". Alco Record, Corus Layde, Fuchosa eta Estampaciones Bizkaia lako enpresa handietan grebak "eragin handia" izan dauela azaldu dau. ELAk jakitera emon dauenez, zerbitzuetan eta industria mailan eskualdean lanuzteak "jarraipen handia" izan dau.

LAB sindikatuko Oier Perezek be grebak eskualdean "arrakasta" izan dauela azpimarratu dau: "Enpresa handienetan gehiengo zabalak greba egitea erabaki dau", azaldu dau Perezek. Gaineratu

Durangaldean grebak "jarraipen handia" izan dauela dinoe, bai industrian bai zerbitzu arloan

Sindikatuaren esanetan, eskualdeko enpresa handienetan gehiengo zabalak greba egin dau

dauenez, "Durangoko eta inguruetako komertzioak be itxita egon dira, baita Sabeco eta Eroskiko plataforma be".

Durangaldean manifestazioak egin zitueen atzo arratsaldean. Durangon arratsaldeko 17:30ean ehunka lagun Andra Maritik abiatu ziren greba deialdiko aldarriekin bat eginez. Elorrión, 18:00etarako deitutako manifestazinoan be hainbat lagun elkartu ziren.

Datu orokorrak

Sindikatu abertzaleek ezagutzera emondako datuen arabera, grebak %50eko jarraipena izan dau. "Hego Euskal herriko sektore eta enpresa guztietako gehiengo zabalak bat egin dau grebagaz". "Arrakasta handia" izan dauela, eta Nafarroan "emaitza nabarmena" lortu dauela azaldu dabe.

Bilbon goizean deitutako manifestazinoan ELAko arduradunek esan dabenez, "sindikatuak

oztopo asko gainditu behar izan ditue greba arrakastatsua izan daiten". LABen berbetan, "greba jokoz kanpora izteko saiakeraren aurrean egon den erantzuna pozgarria izan da".

Greba deialdia egin daben sindikatuek emondako datuek azaltzen dabenez, grebak "industria sektorean" izan dau eraginik handiena.

Zerbitzu publikoan, udaletxe gehienetan, "jarraipena handia" izan dela jakitera emon dabe. Irakaskuntzan, barriz, %40koa, sare publikoan zein pribatuan.

Garraio arloan, euskal sindikatuen aburuz, gitxieneko zerbitzuak "normaltasunez" beharegin dabe, "gehiagizkoak" izan arren.

Jaurlaritzaren balorazioa

Eusko Jaurlaritzak eta patronalak ezagutzera emondako zifren arabera, grebak %10-20 arteko jarraipena izan dau. Confebasken aburuz, greba deialdia "porrot boro-

bila" izan da. Jaurlaritzaren esanetan, barriz, "greba errespetagarria den arren, politikoa izan da".

Datuei jagokonez, Jaurlaritzaren esanetan industrian greba %10-20 artekoa izan da; osasunean %6koa; administrazio publikoan %10ekoa; hezkuntza publikoan %23-28 artekoa eta pribatuan %17koa.

Greba deialdiaren aurka agertu dira UGT eta CCOO sindikatuak.

Sindikatu abertzaleek emondako datu orokorren arabera, grebak industrian eragin dau gehien

Jaurlaritzatik jakitera emon dabenez, greba orokorrak %10-20 arteko jarraipena izan dau EAEn

Ezker abertzaleak, Aralarrek eta Eusko Alkartasunak, aldiz, deialdiagaz bat egin dabe.

Gitxieneko zerbitzuak
Sindikatu abertzaleek salatu dabe-nez, “gehiiegizkoak” eta “greba eskubidearen kontrakoak” izan dira Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak ezarritako gitxieneko zerbitzuak. “Inoizko atzerakoienak” izan direla kritikatatu dabe, eta aurreko greba orokorrean ezarritako gitxieneko zerbitzuak “zeharo handitu” direla. Grebari “zilegitasuna kentzea” izan dabela helburu kritikatu dabe.

Gitxieneko zerbitzuak “inoizko atzerakoienak” izan direla salatu dabe greba deialdia egin daben sindikatuek

Lehenengoz, haur hezkuntzan, mendekotasun arloan eta zerbitzu sozialetan gitxieneko zerbitzuak arautu ditue

Garraio arloan %30eko gitxieneko zerbitzuak jartzeari “ulertezina” deritzoe greba deialdia egin daben sindikatuei.

Haur hezkuntzan, mendekotasun arloan eta bestelako zerbitzu sozialetan gitxieneko zerbitzuak arautu ditue lehenengoz: “Kasu askotan jaiegunetan baino zerbitzu handiagoa”. Lehen hezkuntzan lau ikasleko irakasle bat egon beharra be kritikatu dabe: “Heziketa bermatu baino, ikasleak zainduta egotea gura dabe, gurasoak lanera joateko”.

Euskal Sindikatuek gitxieneko zerbitzuen harira epaiegietan errekurtsoa jarri eben arren, EAE-ko Auzitegi Nagusiak ez dau kon-tuan hartu. ■ J.G.



Durangoko kaleetan zehar be manifestazinoa egin eben eskualdeko ehunka grebalarik.



ATXEKIMENDUAK (komiteak)

Metala:

- Agiria Hispania
- Amilibia y de la Iglesia
- Tenneco Automotive
- Microdeco
- CIE Egaña
- CIE Inyectametal
- Pronutec
- MZ (Berriz)
- Camelot
- Ona Electroerosión
- Estamcal
- Mecanizados Iketz
- Jesus Oñate Hermanos
- Bruss Juntas Técnicas
- Estampaciones Bizkaia
- Fundiciones San Eloy
- Teknia Elix
- Industrias Alga
- Mafisa
- Corus Layde
- Permar Sistemas
- Almacenaje

- Mugape

Udaletxeetako komiteak:

- Durango, Zornotza, Iurreta, Berriz, Zaldibar eta Elorrio

Gizarte lana edo erresidentziak:

- Orue erresidentzia
- Bizitzen Fundazioa

Kimikak, papera:

- Papeles Nervión
- Euskal Kataforesis
- Smurfit Nervión
- Smurfit Ibersac
- Envases Vascongados
- S.D.F.

Zerbitzuak:

- Cafés Baqué
- Sabeco Durango
- Gastronomía Cantábrica
- Servirest
- External Global Services
- Garbikuntza Durango
- Garbikuntza Zornotza
- Garbikuntza Elorrio



Administrazinoa eta patronala kritikatz

Krisiaren aurrean hartutako neurriak ez direla egokiak izan deritzoe

Elkarrietzeta sozialaren bidetik ez direla egungo langileen arazoak konponduko deritzoe greba deitu daben sindikatuek. Langileen eskubideak defendatzeko mobilizazino eguna izan dabe gaur.

ELA sindikatuaren arabera, “mahai horren bidez ez da langileentzako hobekuntzarik lortuko, baina bai bertako partaideentzako subentzino mordoa”. Greba egiteko arrazoi ekonomiko eta sozialak dagozela nabarmendu dau ELAk. Enpleguaren galera salatzea eta gastu sozial handiagoea eskatzea dira sindikatu honen greba eguneko aldarrikapenak.

Greba egiteko langileek arrazoiak “soberan” daukiezela deritzo LAB sindikatuak. “Kapitalismoaren krisiari kapitalismo gehiagogaz erantzuten dabilz, baina guk krisia aldaketarako aukera bilakatu behar dogu”, aldarrikatu dabe LABekoek: “Aberas-

tasunaren banaketan eta justizia sozialean oinarritutako eredu ekonomiko eta soziala gura eta behar dogu”.

EHNEko kideek azaldu dabe-nez, krisiak landagunea “kolpatzen” dihardu aspalditik. Baserri-tarren egoera “itogarria” dela gaineratu dabe. “Liberalizazioaren eta eskubideen galera” nabarmendu ditu baserri-tarren sindikatuak.

Irakaskuntza arloko beharginek bizi daben “prekarietate egoera” salatu dau STEE-EILASEk, Ordezkoen eta laguntzaileen kontratuak gogora ekarriz.

HIRU sindikatuak, barriz, enpresetako produktzioaren jaitzierak garraiolarientan izan dauen eragina azpimarratu dau. Produktzio-katean krisiak arlo guztietan eragin dauela gaineratu dabe garraiolarien sindikatu-kideek. ■ J.G.

Krisiaren eragina langileek bakarrik ez daiela ordaindu eskatu dabe greba deitu daben sindikatuek

Greba deialdiaren egileek elkarrietzeta sozialaren bidetik langileen arazoak ez direla konponduko deritzoe

MERKATARI ETA AUTONOMOENTZAKO KRISIAREN KONTRAKO NEURRIAK

EZAGUTU ITZAZU KRISIARI AURRE EGITEKO ZURE ESKU DITUZUN LAGUNTZA FINANTZARIOAK !!!

EGUNA: MAIATZAK 28
TOKIA: Landako ELKARTEGiko areto nagusian
ORDUA: 13:30

Antolatzaileek luntxa eskainiko dabe.

Interesatuta bazaudé elkartearen telefonora dei dezakezu: **94 681 81 42**

Babesten du:

ATXONDO

EAJ eta ezker abertzalea, bata besteari dimisino eske

Udalbatzarrean irregulartasunak leporatu deusiez elkarri alderdi biek



Cobos alkatea lehenengo planoan; atzean, ezkerretara Buruaga eta eskumatara Igarza.

Ezker abertzaleko zinegotzien aldeko botoekin onartu eben martitzeneko udalbatzarren Miguel Angel Buruaga eta Jose Antonio Igarza EAJko zinegotziei zuzendutako dimisino eskaera. EAJk bozkatzeari uko egin eutsan.

Ezker abertzaleak EAJko zinegotzi bien dimisinoa eskatu eban, 1998an Buruagari etxebizitza bat eraikitzeako emondako baimena “legez kanpokoa” zela argudiatuta. Salaketa hori Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoak

Buruagak legez kanpoko baimena jaso ebala salatu dau ezker abertzaleak

EAJk akusazino bera egin deutse Cobos alkateari eta Mendibil zinegotziari

egindako ebazpenean oinarritu da. Organo honi sasoi haretako egitateak aztertzeako eskatu eutsien, eta txostenak dinonez, “etxebizitza lurzoru urbanizaezinean eraikitzea baimendu zen, nekazaritzako ustiapenerako lotura planteatu be egin barik, eta hori aztertutako araudiaren kontra doa”. Txostenak dau emoten baimena ofizioz berrikusteko aukerarik, denpora asko joan delako.

Bere sasoi an, Buruagak birritan eskatu eban landa-lurretan etxebizitza eraikitzeako baimena. Lehenengoan udal teknikariak eskaeraren aldeko txostena egin eban, baina Aldundiaren baimena beharrezkoa zela argituta. Aldundiak erantzun eban harrez-

kero ez zela beharrezkoa euren baimena, eta udal bakotxak aztertu behar zituela etxeak ustiapen bati lotutakoak ziren ala ez. Bigarren eskaerak udal teknikariaren baiezta izan eban, “Aldundiak azaldu-takoa aitatu be egin barik”.

Igarza ez zen alkate

Atxondoko EAJk, lehenengo eta behin, Buruagari baimena emon eutsana ez zela izan Jose Antonio Igarza argitu eban, orduko alkatea ez zelako bera –urtebete geroago hartu eban kargua–, Ricardo Uriarte baino, EAJkoa bera be; era berean, sasoi haretan Buruaga ez zela EAJko afiliatu be gogorarazi eben. Cobos alkateak hutsa onartu baina dimisino eskaera mantendu eban, “alkatea ez, baina zinegotzia bazelako, eta ondoren alkate zela bizigarritasun baimena emon eutsalako”.

Atxondoko EAJk David Cobos alkatearen eta Iñigo Mendibil zinegotziaren dimisinoa be eskatu eban, udal jardueran “informe tekniko konpetente baten sostengu barik lizentziak emoteagatik”. Cobosek hori guztia “demostratzeko” eskatu eutsen jeltzaleei.

Azkenik, Ricardo Uriarte sasoi alkateak esan eban baimena emon ebala udal teknikariaren aldeko txostenagatik. Gogoratu ebanez, egun haretan bestelizentzia bat be emon zen, baina bakararra aztertu dabe. EAJk honen guztiaren atzean “jazarpen politikoa” dagoela deritzo. ■ J.D.

Ricardo Uriartek dio beste lizentzia bat be emon zala, baina bakararra aztertu dabela

ABADIÑO

Astebete daroe Untzueta kalea barrizteko lanak egiten

500.000 euro inguruko aurrekontua daukien lanak dira egiten dabilzenak

Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoaren diru-laguntzagaz finantzatu ditueen lau obretatik lehenengoa dihardue burutzen Traña-Matienan. Orain astebete inguru hasi zitueen Untzueta kalea osorik birmoldatzeko lanak.

Guztira, 500.000 euro inguruko aurrekontua izango dabe lanak egiteko, eta bost hilabete epean egon beharko dabe amaituta; urri-rako amaitzea itxaroten dabe, beraz. Izan be, Estatuak tokiko inbertsinoak bultzatzeko emon dituen diru-laguntzen baldintza nagusia lanak abenduaren 31rako amaituta egotea da.

Denpora horretan, kalea itxita egongo da, eta komertzioetarako sarreretan oinezkoendako pasabideak ipini ditue.

Kale guztia “erabarritzea” helburu daben lanotan, besteak beste, saneamendua, altzariteria, kalearen diseinua bera, lorategiak, etab. be barriak egingo ditueela

Kaleko saneamendua, lorategiak eta altzariteria barrituko ditue, besteak beste

40 urtean “ikutu barik egon diren kaleak konponduko” ditueela dino alkateak

Untzuetan ez eze, San Andres kalean be lan berberak burutuko ditue ondoren

azaldu dau alkateak. Jose Luis Navarro alkatearen berbetan, “40 urtean ikutu barik egon diren Matienako kale zaharrak konpontzea da helburua”. Hainbeste urtean barriztu eta egokitu barik egon den Traña-Matienako alde zaharreneko kaleek erabarritzeko behar nabaria daukie, alkateak dinonez.

Untzueta kaletik hasi direla eta datozen hilabete eta urteetan auzoko beste kale batzuekin jarraituko dabela azaldu dau Talde Independienteko alkateak.

San Andres hurrengo

Laster hastekoak dira orain aste batzuk onartutako aurtengo aurrekontuetan jasota dagozen San Andres kalean egin gura ditueen lanak. Kale honetan be, Untzuetan moduan, kalea “goitik behera” erabarritutuko dabela jakinarazto dau Jose Luis Navarro alkateak. Aurtengo aurrekontuetan 600.000 euroko diru-atala dago lanotarako zehaztuta. ■ I.E.

OTXANDIO

Krisiari buruzko azken berbaldia, maiatzaren 29an Kultur Etxean

Hiru aukera krisia ulertzeko kanpainako azken berbaldia antolatuko dabe Kementsu elkarteak eta Gazte Asanbladak maiatzaren 29an, arratsaldeko 19:00etan, Kultur Etxean. *Gizarte eredu honek badu alternatibarik?* galderari erantzuten saiatuko dira Jon Sarasua, Nekane Jurado eta Gorka Bueno hizlariak.

Jon Sarasuak, Nekane Juradok eta Gorka Buenok berbaldia eskainiko dabe

Antolatzaileen berbetan, “hitzaldien helburua krisia zergatik sortu den, ondorioak eta gizarte eredu honek alternatibarik baduen hausnartzea da”.

Udaleko Kultura Sailaren laguntza jaso dauen ekimena martxoan jarri eben martxan krisiaren arrazoien inguruko hitzaldiagaz, eta apirilean sindikatuekin mahai-ingurua egin eben. ■ J.G.

BERRIZ

Ur eta estolderia azpiegiturak eroango ditue Eitua auzora

Eituako industriagunetik Eitua auzora ur eta estolderia azpiegiturak eroango ditue. Astelehenan esleitu zitueen lanak; laster hasi eta hile biren barruan amaituko ditue.

Eusko Trenbideak inguru horretan lanak egiten dabilela aprobetxatu dabe, bide batez, hornidura horreen adarrak Eituara eroateko. Horrek ez dau esan gura auzo horreetako base-riak estolderia sarean sartuko direnik. Oraingo, baserri bako- txak bere putzu septikoagaz jarraituko dau. Baserriak estolderia sarean sartzeko pausua etorkizunera begirakoa da. Ur horniduragazko lotura arinago egingo dabe, helburua herri osoa lotuko dauen eraztuna sortzea delako. ■ J.D.

Astelehenan esleitu zitueen lanak; laster hasi eta hile biren barruan amaituko ditue

KOLORE GUZTIETAKO DESKONTUAK RENAULT OCASION-en

**MODELO
UGARI
BEHERAPEN
HANDIAGOAREKIN**

3.000€*
ARTEKO DESKONTU
GEHIGARRIA

**RENAULT-eko
SAREAN
MAIATZAREN 30A ARTE**

www.gaurisa.com



ZUK DENA NAHI DUZULAKO

GAURISA AUTOAK

ARRIANDI, 12. IURRETA. TELF. 94.620 33 00

*Maiatzaren 15etik 30era balio duen sustapena lurralde nazionalen abokitutako Renault Sareko instalazioetan.



DIURRETA

Ardao jaia ospatuko dabe, zapatuan, Askondo inguruan

VI. Okela eta Ardao Egunean 10 upategi batuko dira, eta 40 bat bildots erreko ditue burduntzian

Ardao jaia izango dabe beste behin iurretarek, zapatuan. Seigarren aldia daukan Okela eta Ardao Egunean Arabako Errioxako 10 upategi parte hartuko dabe, eta eguraldia be lagun izanez gero 40 bildots erreko ditue burduntzian, hurreratu-takoei pintxoakesaintzeko; igazko bildots kopurua bibidertuko dabe, Iñaki Totorikaguena alkateak argitu dauen moduan.

Udalak, Arabako Errioxako Upeltegien Elkartearen laguntzagaz, eratutako Okela eta Ardao Eguna 11:00etan hasiko da eta 15:00ak bitartean Arabako Errioxako gura den beste ardao dastatzeko aukera izango dabe ber-

taratuko direnek. Horretarako, baina, kopa erosi beharko da 2,50 euroan. Launa, Pérez Irazu, Señorío de las Viñas, Aguirre, Eduardo Jiménez Arrausi, Covila, Hermanos Pascual Miguel, García de Olano, Vallobera eta José Córdoba upategien ardaoa probatzeko aukera emongo dabe.

Burduntzian erretako bildots pintxoak, barriz, 1,50 euroan salduko ditue. Aurten, 40 bildots erre gura ditue burduntzian; eguraldia lagun bada behintzat: "Igaz, 20 erre genduzen eta ordubete inguruan dena amaitu jakun. Aurten 40 erretzea aurreikusi dogu; eguraldiak laguntzen ez badau, 30 bat", argitu dau alkateak.

Puzgarriak eta dastaketa

Catavinum enpresaren eskutik ardao dastaketa ikastaroa be izango dabe, 12:00etatik 13:00etara. Horretarako, baina, izena emon behar da Ibarretxe kultur etxean aurretik; egunean bertan be bai, ordu erdi lehenago, horretarako ipinitako stand-ea. Nobedade lez umeendako gaztelu puzgarriak be jarriko ditue, 12:00etatik 14:30 arte, udal arduradunek gogorazio dabenez. ■ A. B.

Umeendako gaztelu puzgarriak egongo dira, 12:00etatik 14:30era

Ardao dastaketa ikastaroa be egingo dabe, 12:00etatik 13:00ak bitartean, Catavinum enpresaren eskutik

Hainbat motorzale batu dira Amoiurren hitzordura

Motor kontzentrazioa antolatu dau lehenengo biderrez bertako Amoiur motorzale elkarteak

Denetariko makina bat motorek hartu eben asteburuan Iurretako Bixente Kapanaga kalea, Iurretako Amoiur motorzale elkarteak antolatuta kontzentrazioa izan zen eta bertan. Motor klasikoak zein bestelakoak batu

ziren, eguraldia lagun izan eben jai egunean.

Gernika ingurura egin eben ibilaldia, eta bazkaltzeko Amilburu plazan elkartu ziren. Zezen mekanikoa, moto txikiak eta rock kontzertua be izan ziren. ■ A. B.



Tellitu aparkalekuan elkartu ziren motorzaleak. Kepa Aginako

IZURTZA

Frontoiko lanak ekainerako amaituta egotea itxaroten dabe

Orain hiru aste inguru hasi zituen Tokiko Inbertsinoetarako Estatu Fondoaren diru-laguntzagaz finantzatuta burutuko ditueen frontoia barrizteko lanak.

Lanak hiru hilabeteko iraupena izatea aurreikusi eben, baina, aurre hartuta, datorren hilean amaitzea itxaroten dabela jakinazo dau Udalak.

Zaharkituta zegozen frontoiaren aldameneko leihoak aldatzen dihardue

Frontoiak daukan argitasun falta konpontzeko leiho barri bat zabalduko dabe sabaian

Egiteko nagusiak bi izan dira: batetik, frontoiaren aldamenetan zaharkituta zegozen leihoak aldatzea, eta, bestetik, frontoia argitsuago izan daiten teilatuan leiho bat egitea. Frontoiko argitasun falta konpontzeko zabalduko dabe sabaian leihoa.

Frontoiaren erabiltzaileek ahalik eta kalte gutxienez izateko, tresneria erretiratu egiten dabela azaldu deuskue, eta lanekiraun daben bitartean be frontoia erabilgarri izan dela. Frontoia barriztuta eta erabilgarri, barriz, ekainetik aurrera izango da. ■ I. E.

DIAMARIA

Nekazal eta Artisautza Azokaren 14. edizinoa izango da domekan

Goizeko 10:00etan zabalduko ditue Herriko plazan izango diren postuak

Beste urte batez, hamalagarrenez aurten, herriko plaza eraldatuko dau, egun batez, nekazal eta artisautza produktuak salerosi eta erakusteko Udalak eta herriko elkarteek lankidetzan antolatuta azokak.

Goizeko 10:00etan hasita, euren ortuetan eta tailerretan landutako ekoizpenak erakusmahaietan ipiniko ditue parte hartzaileek, eta 14:30 arte ikusi, dastatu eta erosteko aukera izango dabe hurreratu direnek.

Nekazaritza eta artisautza produktuez gainera, Ahuntz Azpi gorrien XI. Monografikoa be hartuko dau Mañariak.

Arratsaldean, 18:00etan, frontoian izango da azoka eguneko hitzordua, esku-pilotagaz: bigarren mailako Mendizabal eta Lizoain, Idoate eta Larrinagaren kontra neurtuko dituen partidua; profesionaletan, Bengoetxea eta Berasaluze VIII, Apraiz eta Zearraen kontra arituko dira.

Frontoian hau be, asteburuan zehar ikusgai dago "Mañaririk gutxienez eta gehien gustatzen zaidana" gaia izan dauen argazki lehiaketara aurkeztutako irudien erakusketa. Lehiaketako sari banaketa be maiatzaren 24an izango da, 13:00etan, Mañariko Udaletxean. ■ I. E.

Eguerdia arte izango da Artisautza eta Nekazal Azoka plazan, eta pilota partidua izango dira arratsaldean

Herriko argazki lehiaketako sari banaketa be domeka honetan egingo dabe, 13:00etan hasita

Baserriko aspaldiko erreminten erakusketa izan da Aste Kulturalen

Udaletxeko batzar aretoan atondu dabe Aste Kulturalaren egitarauaren barruan antolatu daben baserriko tresna zaharren erakusketa. Jantziak eta etxe barruan zein ortuko lanetan erabiltzen ziren tresnak bildu ditue erakusketan ipintzeko. Mañariarrek etxean zeukiezenak eta erakusketarako itzitakoak dira guztiak. Material askotarikoa batu ditue, eta maiatzaren 25a arte izan dira ikusgai.



**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teilak, zeramika, hormigol
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

Betikoak

flexografia

ofizinarako zigiluak
fotolitoak

Bixente Kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41



DURANGO



Astelehenean egin eben Udal Liburutegi barriaren inaugurazino ekitaldia. Kepa Aginako

Oroitarria Frankismoaren “beste biktimen” omenez

‘Kantu isila’ oroitarria inauguratu dabe Landakon

Francisco Francoren diktaduran euren sexu joeragaitik zapaldutako lesbiana, gay, transexual eta bisexualen omenez ‘Kantu isila’ oroitarria inauguratu dabe Landako erakustazokaren alboan. Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) frankismoaren garaian “euren duintasunaren alde” borrokatu ziren milaka gizon eta emakumeak gogoratu gura izan ditu holan. Koldobika Jauregik egindako eskulturari Jon Maiaren bertsoa grabatu dabe.

EHGAMeko Imanol Alvarezek ez eze, Ahaztuak 1936-77 elkarte-ko Martxelo Álvarezek eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietarako sailburu Gema Zabaletak be parte hartu eben ekitaldian. Era berean, Durangoko Udaleko udal arduradunak be bertaratu ziren. Oroitarria Durangon jarri dabe, besteak beste, bertan sortu zela-ko EHGAM. Bazkaria eta antzerkia izan zitueen gero, eta arratsaldean elkarretaratzea, Andra Marian. ■ A.B.



Hainbat lagun batu zen oroitarriaren inaugurazinoan. K. Aginako

Manifestazinoa deitu dau gazte mugimenduak AHTaren kontra

Abiadura Handiko Trena (AHT) eraikitze lanak hasi ditue Larrinagatxu auzoan. Halan jakin eragin dau Durangoko AHT Gelditu Elkarlanak. Otsailean hasi ziren lehenengo lanak Tabiran, eta orduan lez oraingoan be “Udalak isilik jarraitzen” dauela salatu dabe; “inposizinoaren bidetik” jarraitzen dabela salatu dabe. “Herritar asko eta asko kontra” dagozelagoratu dabe: “Ez gara ez isilik ez geldirik gertuko, holan gura gaituen arren”.

Larrinagatxun be hasi ditue AHTa egiteko lanak, Elkarlanekoek dinoenez

Landakotik irtengo dabe Larrinagatxun lanak hasi ditue- la-eta, manifestazinoa be deitu dabe maiatzaren 29an. Durangaldeko gazte mugimenduak luzatu dau deia, Landakon batze-ko 18:30ean. Ohar baten argitu lez, “AHTak kaltea baino ez deus-kuekarriko. Kalte ekologikoa eta baita soziala be. Durangaldea itoko dau, deslokalizazioaren eta beste mila eraginen ondorioz”. Dinoenez, “herritarrek aspaldi esan eutsien ezetz inposaketa horri, eta ezetz esaten jarraitzen dogu gazteok be”. ■ A.B.

Maiatzaren 29rako egin dabe manifestazinorako deia, Landakon, 18:30ean

Asteon zabaldu dabe Kalebarriko Udal Liburutegia

Hainbat lagun batu zen inaugurazino ekitaldian

Lehenengo erabiltzaileei egin deutse harrera Kalebarriko Udal Liburutegi barriak. Astelehenean hainbat herritar eta kultur eragile bertaratu ziren, inaugurazino ekitaldira; baita udal arduradunak be. Biharamunean 09:00etan zabaldu zitueen atea erabiltzaileentzat. Aitziber Irigoras alkateak azaldu dauenez, kultura- ren eta ikaskuntzaren aldeko “apustu erabakiorra” egin dau Udalak: “Artxibo historikoa, wifia, ikaste-ko lekua, irakurtzekoa edo musika entzutekoa... batzen dauen espazioa, baina, bizitzaz, pertso- nez, bete behar da. Holan kultura sortzeko, kultur barrikuntzarako gunea sortzeko”, gaineratu dau. Helburua liburutegi-fondoa 120.000 alera heltzea den arren, Kalebarriko bibliotekak 42.500 liburu inguru batzen ditu berta-ko apaletan; 4.500 gehiago ditu

bestelako fondoetan. Horrezaz gainera, sotoan, jagoken baldin- tzak bermatuz, 11.000 liburu eta agiri batzen dituen Artxibo Histo- rikoa gordeko dabe; kontsultara-ko lekua be egokitu dabe bertan. Hainbat zerbitzu Haur-liburutegia egokitu dabe behe-solairuan Kalebarria zein Komentukaletik sarrera daukan liburutegiak; baita hemeroteka eta musika entzuteko lekua be. Lehe- nengo pisuan, barriz, liburutegia. Gorago ikasi zein lanerako gelak jarri ditue, ordenagailuak ez eze, eta azkenengoan hainbat erabile- rako lekua atondu. ■ A.B.

Bertaratu ziren herritar eta kultur eragileendako luntxa be eskaini eben ekitaldian

MALLABIA

Debegesa eta baserritarrak aterabide barrien bila dabilz

Baserriaren egoera txarrari irten- bideak aurkitzeko asmoagaz, Kultur Etxean elkartu dira asteon baserritik bizi direnak edo bizi gura dabenak, eta Debegesako teknikariak. Debegesa Debaba- rrenako herriek osatzen dabe eta horreen artean dago Mallabia. Gauregun landaguneak bizi dauen egoera ikusita, Udalak bilera hori antolatu dau, tekni- kari eta baserritarrek berba egin eta sortzen diren ideia barriak bultzatzeko helburuagaz. “Bes- te herri batzuetan beste sekto- re batzuen alde egin da, eta Mallabiko Udalak baserriaren aldeko apustua egin gura dau”, jakitera emon dabenez.

Debegesak dinonez, gaur egun produktu ekologikoak dira baserriaren etorkizuna

Teknikarien esanetan “pro- duku ekologikoa da gaur egun baserriak daukan irtenbidea, kalitatea delako konpetitu ahal izateko modurik onena”. Debe- gesaren sostengua izango leukie baserritarrek diru-laguntzak, informazinoa eta laguntza tek- nikoa jasotzeko. Entzuleek begi onez ikusi eben azaldutakoa, baina pro- duku horreek merkaturatzeko sortzen diren arazoenguruko kezka agertu eben. ■ P.M.

ELORRIO

Uda osterako Arriola antzokia intsonorizatuta egongo da

Azken urte bietan Arriolaren ondoan bizi diren bizilagunak behin baino gehiagotan kexatu dira antzokiko funtzinoen soina behar baino ozenago entzuten delako etxebizitzetan. Ildo horre- tatik, Udalak Arriolako esena- tokia intsonorizatzeko asmoa dauka; proiektua egiteko 9.400 euro bideratu ditue. Intsonorizazioak 180.000 euro inguru balioko dauela uste dabe udal arduradunek. Proiek- tua osatu ondoren, lanak ahalik eta arinen hastea gura dabe. “Udan hasi eta amaituko dira. Uztaile inguruan hasi eta urri- rako, denboraldi berrirako, prest egongo da”, Niko Moreno alka- tearen berbetan. Antzokiko zara- ta betidanik entzun ei da etxe- bizitzetan, baina orain urte bi arte kexa formalik ez dabe jaso.

Boto-emotea kiroldegian Bestalde, ekainaren 7ko Europear Parlamenturako Hauteskunde- tarako hauteskontzi guztiak kirol- degian bateratuko ditue lehe- nengoz. Alderdi guztiak ados dagoz neurriagaz. Esperientzia ona bada, holantxik jarraituko dabe aurrerantz. ■ J.D.

180.000 euro inguru bideratuko ditue Arriolan antzokia hosgabatzeko

▣ ZALDIBAR



Txotxongilok izan dituen azken lau monitoreak dira Aitor, Juanan, Zuriñe eta Ane Miren. I.E.

1986tik herriko umeak hartu dituen Txotxongiloren agurra

Urteetan izan daben ardurari erantzuteko denpora faltagaitik itziko dabe

Eskolan, frontoiaren eta haurrendako jolas-parkearen artean dagoen eraikinaren lehenengo pisuan, azken urteetan euren lokala izan denean, hartu gaitue Txotxongilo aisialdi taldean monitore jardun daben lau lagun gazteek. Laster behera botako daben eraikinean azaldu deuskue 1986an sortutako aisialdi taldearen azkena ailegatu dela.

Urtarrilean egin eben, Oromiñoko aterpetxean, Txotxongilo aisialdi taldearen despedida. Taldearen 23 urteko historian bertatik igaro diren hainbat monitore batu ziren, eta hasiera batean elizari lotutako taldea sortu zuten Alex Alonso eta Jesus Mari Alberdi be izan ziren despedidan.

Erantzukizun falta

Txotxongilo taldeko azken lau monitoreek—Aitor, Juanan, Zuriñe eta Ane Mirenek—dinoenez, nabarrena da eurek egin dabena lako “bolondres-lana” burutuko dauen jentea topatzea zaila dela gaur egun: jentek ez ei dau konpromisorik hartu gura. Eurak hasi zirenetik hona, “gizartea dela aldatu dena” dinoe azken taldearen arduraz izan daben lau gazteek.

Taldea sortu zenean, Txotxongilo garai gorenean zegoenean, herriko 80 bat ume 20 monitoregaz batzen ziren astebururo eskulanak egiteko, berbaldietarako,

Orain 23 urte elizari lotuta sortu zen Txotxongilo aisialdi taldea, eta herriko hainbat ume hartu ditu ordutik

Eurek hainbeste urtetan egin dabena lako bolondres-lana egingo dauen gazte jenterik ez dago gaur egun, dinoenez

▣ GARAI

Ikastaroak eratu ditue Interneten inguruan

Internet erabiltzen ikasteko aukera izango da Garain, ekaina artean eratu ditueen ikastaroen bitartez. Urkiolalanda garapenerako elkarrekin antolatuko dauen ekimen hau debaldekoa izango da.

Herriko KZgunean burutuko dira ikastaroak. Bi aukera izango dira: bata oinarritzkoa eta administrazioagaz loturikoa uztartuko dituen, eta bestea arlokakoa: lana lortu, seguru

mendira irteerak egiteko, asteburupasa joateko, etab.

Orain hiru urtetik, Txatxilipurdi taldearen ‘Zapatublai’ eta ‘Gazteleku’ aisialdiko proiektuak ipini ditue martxan Zaldibarren. Egungo gizartean, musutruk lan egitea barik, “lanak halako enpresei esleitzea bilakatu da ohikoena”. Gazteek ez ei daukie monitore izateko bape interesik orain, eta egitekotan diru truke egiten dabe.

Udalaren laguntza eskertu gura izan dabe Ane Miren, Zuriñe, Juanan eta Aitorrek, batez be, lau-rok bakarrik geratu direnetikemon deutseen laguntzagaitik. ■ I.E.

nabigatu, egunkaria irakurri edo finantza erakundeekin lan egiteko, esate baterako. Lehenengoak 20 orduko iraupena dauka, eta bigarrenak ordu bat edo bikoa.

Goizez zein arratsalde

Ikastaroak maiatza eta ekainean zehar garatuko dira, eta goizez zein arratsalde parte hartzeko aukera izango da, astelehenetik barikura. Dena dela, ordutegia interesdunen artean finkatuko da, eskaera eta erabilgarritasunaren arabera.

Izena emoteko, 688 613 537 telefonora deitu behar da. ■ M.O.

▣ DURANGO

‘Zaintza’ abiatu dau Caritasek

Bizkaian barria eta aitzindaria den ‘Zaintza’ zerbitzua abiatu dau Caritas-Tabirak. Etxe-zerbitzuan eta adinekoeen zaintzan formazinoa emon ez eze, bertaratuko direnen laneratzean bitartekari be egingo dabe, Kanpatorrostetako elizetxean; Andra Mariak itzitako lokalak egokitu ditue. Inaugurazinoa 29an egingo dabe, 20:00etan, Justizia eta Elkartasuna jardunaldien baitan. *Caritas-Tabira gaur: harrera, Ekorropa, Zaintza eta sentsibilizazinoa* mahaingurua eratu dabe hilaren 26an, eta 28an *Zaintza Tabira: Servicio pionero en Bizkaia, de proyecto a la realidad*; biak Arrupe Aretoan, 20:00etan. “Krisiak eragindako egoeren aurrean” ekitaldia izango da 27an, Andra Marian, 20:00etan.

Stonyhurst-ekin elkartrukea egin dau Jesuiten ikastetxeak

Stonyhurst (Ingalaterra) 16 ikaslegaz elkartrukea egin dabe, aurtentzen zazpigarrenez, San Jose-Jesuitak ikastetxeko beste horrenbeste ikaslek. Oraingoan honakoa izan dabe langai: *Nire etorkizuna: Ingalaterrako zein Euskal Herriko hezkuntza eskaintza eta lan irtenbideak*.



Aste bi egin ditue, inglesa hobetu eta hango bizimodua ezagutzeko aukera izanik. Asteotan Durangon hartuko ditue Stonyhurstkoak.

▣ ABADIÑO

Gerbas aireratuz agurtu ditue, beste behin, San Trokaz jaia

Gerbas aireratuz agurtu ditue beste behin abadiñarrek bertako zaindariaren jaia: Santrokazak. Musika, lehiaketak, jolasak... makina bat ekitaldik jantzi dabe jai giroa. Era berean, usadioari eutsiz, jaunartzeak be izan ziren San Trokaz Egunez. Aurtentzen, lau gaztetxok egin dabe jaunartzea. Udalbatzarra batu ohi da udaletxearen atarte San Trokaz Egunez, eta dantzariak dantzantzen egin ohi deutsee komunioa egindako gaztetxoei.



K.A.

▣ DURANGALDEA

“Demokrazia aroko” lehen agintariak omendu ditue

Udaletxe “demokratikoen” eraketaren 30. urteurrena dela-eta, Euskal Udalen Elkarteak (EUEDEL) “demokraziako” aurreneko alkateak omendu ditu. Horren artean, Jose Luis Lasuen (Abadiño), Jose M^a Mardaras (Atxondo), Jose Miguel Apraiz (Berriz), Francisco Zurikarai (Durango), Jesus M^a Agirre (Elorrio), Jose Loizate (Garai), Juan M^a Etxeandia (Izurtza), Iñaki Bilbao (Mañaria), Miguel Angel Olalde (Mallabia), Javier Vicente Viteri (Otxandio) eta Balendin Lasuen (Zaldibar).

HERRIRIK HERRI ATALAREN BABESLE



BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia

BERBAZ >

“Taldekide izan diren belaunaldiak elkartuz ospatuko dogu urteurrena”

Landako Gunean antolatuko daben bazkariagaz, Inurriren 25. urtemuga ospatuko dabe bihar.



Amaia Alonso •

Eric Arévalo •

■ Inurri eskaut taldeko kideak dira

Amaia Alonsok 20 urte daroaz Inurri eskaut astialdi taldean. Eric Arévalok, barriz, orain hiru urte egin eban taldeagaz bat. Durangaldean astialdi arloan erreferente den taldeak mende laurdena bete dauela-eta, jaialdia antolatu dabe biharko, Landako Gunean. Antolaketa lanetan buru-belarri dabilzen arren, elkarrizketarako tartetxoa egin deuskue.

Zelan gogoratzen dozuez Inurri eskauten emondako lehenengo pausoak?

Amaia Alonso: 10 urtegaz hasi nintzen taldean parte hartzen, beraz, 21 urte daroadaz. 18 urte egindakoan, monitore ikasketak egin nituen.

Eric Arévalo: Orain hiru urte ezagutu neban taldea. Aurretik ez neban Inurri ezagutzen. Monitore ikasketak egiten nenebela praktikak egin behar nituen, eta Inurrira etortzeko aukera sortu jatan. Ordutik, monitore jarraitzen dot taldean lanean.

Zelan sortu zen taldea?

A.A. Periko jesuitak Belagua eta Izaban Durangoko ikastetxeko gazteekin irteerak antolatzen zituen. Eskaut talde bat sortzeko beharra zegoela ikusi eban, eta monitoreak hezten hasi ziren.

Urtemugako ospakizunetarako bidatu dozue.

E.A. Bai, orain 20 urte Tuterara joan bazen be, urteurren ekitaldira etorriko da.

Zelako garapena izan dau taldeak ordutik hona?

A.A. Inurri, astialdi arloan, eskualdeko erreferente da. Talde guztietan gertatzen den legez, gorabeherak izan ditu. Eskualdean sasoi batean talde ugari zegoen arren, orain oso gitxik jarraitzen dabe; beraz, joera hori orokorra da. 60-70 ume inguruk parte hartzen dabe urtero.

Inurriren lokalean ez dira ume guztiak sartuko.

E.A. Batzarrak egiteko bai, baina, bestela, ez daukagu ezer antolatzeko lekurik.

A.A. Umeak bost adin tartetan banatzen doguz. Bi talde aldi

berean ez dira lokalean kabitzen. Udalagaz beste lokal bat lortzeko hartu-emonetan gabilz. Dena dela, Durangon lokal falta handia dago.

25. urtemuga behar den moduan ospatuko dozue.

A.A. Hainbeste urtean taldean parte hartu daben ume, gazte, monitore eta gurasoak batu gura doguz. Egun polita izango delakoan gagoz.

E.A. Ekitaldi honekin astialdi talde legez Durangaldean Inurri egindako lana ezagutzera emon gura dogu. Parte hartze handia izan dogun arren, herrian bada taldea ezagutzen ez dauenik, eta horrengana heldu gura dogu.

Lagunarteko ospakizuna izango da, beraz, batez be.

E.A. Bai, ospakizunean belaunaldi askotako taldekideak batzea dogu helburu. Beste sasoi batzuk gogoratu taldea etorkizunera begira jarri eta motibatzea da asmoa.

Taldeak zer emon deusue?

A.A. Inurri eskauten ibili izan ez banintz, ez neukez daukadazen baloreak edukiko. Konpartitzen eta ardurak hartzen

“Inurriren sortzailea, Tuteran bizi den arren, ekitaldian parte hartzera dator”

“Taldekide batek Inurriri buruz egindako bideoa proiektatuko dogu”

“Taldeak azken urteotan egindako lana ezagutzera emon gura geunke”

erakutsi deust, bai ume moduan bai monitore legez.

Domekan Landako Gunean zer ekintza egingo dozuez?

A.A. Goizean Jesuitetan meza izango da, eta ondoren ohorezko aurrekua dantzatuko dabe. Puzgarriak eta jolasak antolatu doguz topaketa momentu horretarako. Ondoren, Landako Guneaino musikaz alaitutako kalejiran joango gara. **E.A.** Herri-bazkarian elkartuko gara Landako Gunean. **Zorionak zuri** abestu ondoren, Inurriri buruzko bideoa ikusiko dogu. Taldeko argazkiak be aterako doguz.

Zeri buruzko ikus-entzunezkoa izango da?

E.A. Taldekide batek prestatu dauen bideoa da. Antolatu doguzen ekintzak grabatzen ibili da, eta emaitza domekan ikusgai izango dogu.

Musika saioa prestatzen zabilzie. Zelako ekitaldia izango da?

A.A. Taldeko arlo askotako kideek emanaldi bana prestatzen dihardue, Inurriren ibilbideko abesti mitikoak abestuko doguz-eta.

■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>DURANGO

Woka Euskadigaz bat egin dabe Maristek be

Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtearen ekintza programaren barruan antolatu da ekimena

Woka Euskadi ekimenagaz bat egin dau Maristak ikastetxeak Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) beste ehundik gora erakunde eta eragileguz batera. "Gizartea mobilizatzea eta gu geu mobilizatzea" izan da astelehenean 12:00etatik 15:00etara izan eben hitzorduaren helburua. "Bizi dogun segurtasun gitxiko" egoeraren aurrean proposamenak egin eta irtenbide eta hautabideak topatzeko elkartu ziren hainbat lagun Maristetan. Sormenaren eta Berrikuntzaren Europako Urtearen ekintza programaren barruan antolatu dau ekimena Innobasque agentziak, eta Maristak ikastetxea be deialdira batu da.

Krisia izan eben eztabaidagai, bai Durangon bai beste hainbat herritan —EAEko hiru hiriburuetan be egin eben— eta herritarrek egoera horretatik irteteko proposamenak egin ditue. Innobasque txosten baten batuko ditu proposamenak, eta erakundeei igorriko deutsez erantzunak, herritarren eritzia ezagutu daien. ■ A. B.

Krisia izan dabe eztabaidagai, eta egoera horretatik urtetako proposamenak egin ditue



Gizartea "mobilizatzea" dau helburu ekimenak. Kepa Aginako

>BERRIZ



Berrizera bertaratutako baserritarrek Bizkaiko Bildotsa dastatzeko aukera izan eben. Judit Fernandez

Hiltegi barriaren egitasmoa aurkeztu deutsee baserritarrei

2011n gauzatuko dabe Erraldek Berrizko Eitua auzoan eraiki gura dauen hiltegi barria. Erraldeko eta EHNEko arduradunek San Isidro egunez emon eutseezen azalpen guztiak baserritarrei. Lur mogimenduak ekainean hastea aurreikusit dabe, eta eraikin barria altxatzen udagoeinean hastea. Eusko Jaurlaritzaren zein Bizkaiko Foru Aldundiaren ingurumenagaz lotutako agiri eta baimen guztiak lortuta hasiko dira lanak. Aurkezpena egin ondoren, Bizkaiko Bildotsa dastatu eben. ■ A. B.

kolaborazioa



Mikel Etxebarria
ELA sindikatua

Maiatzak 22

Maiatzak 21: greba aurrera eramán dugun sindikatuok lan eskerga egin dugu azken asteetan; enpresatik enpresara, asanbladak eginez lan zentroetan, merkataritxikiekin, eragileekin, komunikabideekin... eta nahiz eta zutabe hau 21aren aurretik idazten dudan, gauza bat ozen adierazi behar dut: merezi izan du, guztiz.

Grebaren aurka hainbat faktore izan dugu. Hiru esparrutan banatuko nituzke: botere politikoa (alderdi nagusiak: PSOE, PNV eta PP); botere ekonomikoa (patronala: CONFEBASK); eta finantza boterea (bankuak; Fernández Ordoñezaren dogma liberalak). Logikoa da, greba beraien aurka joan baita; hots, gaur egungo eredu ekonomiko eta sozial injustuaren buruen aurka. Faktore hauei gehitu behar diegu "mass mediak" edo botere ekonomiko-finantzariaren zerbitzuko komunikabideak, eta sistemarekin gustura dauden espainiar sindikatuak. Eta hauen aurrean, zer? Milaka eta milaka euskal herritar, greba egiten eta kaleetan krisiaren errudun eta kolaboratzaile direnei aurre eginez.

Maiatzak 22: hau ez da amaitu. Hasi besterik ez da egin. Krisiak (kapitalismoak) argi ditu bere funtsak, argi du kapitalismoa iraunarazteko langilegoa eta gizarte zibila neutralizatu behar dituela. Kaleratzeak, EREak, txantaiak, sufrimendua... XXI. mendeko esklabizazioa. Horrela, "shock" egoeran, elitistek uste dute gehiengo beti sumisoa izango dela beraien estrategiari. Irabazi, arerioa ahulduz. Honen aurrean, erasoan aurrean, injustiziaren aurrean, maiatzaren 21a: inflexio puntua. Eta maiatzaren 22an eta hortik aurrera datozen egunetan, hileetan, urteetan... lana. Kausa honekin konprometituri dagoen jendearen lanaren ondorioz, beste gauza batzuk ere helduko dira. Lehenik, jende gehiago oharreza sistema aldatzeko borrokak merezi duela, gero jendea inplikatzeko, eragile aktibo bihurtzeko, eragile sindikal eta sozialen harremana, sare sozialak antolatzea... Eta hau ez da egun batetik bestera egiten. Denpora behar da, eta lana. Konpromisoa eta militantzia. Aurrera!

Podinara Urreta Jainaga
PODOLÓGICA 100% Especializada

- Oinetako patologiak
- Neurritza egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarrien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]

Argazkilaria: Kepa Aginako

ANTZERKIA > EMANALDIA

Lorcaren berbak antzezten Histrion

Federico Garcia Lorca poetak 1933an idatziriko obra, autorearen ezezagunetarikoa izateaz gain Granadako poetaren antzerki lanen artean esanguratsuenetarikoa ere badena, ekarri zuen Histrion Teatrok, joan zen asteburuan, eskualdera. Zornotza Aretoan eta Durangoko San Agustinen oholdzaratu zuten, barikuan eta zapatuan, *El amor de don Perlimplín con Belisa en su jardín* antzerki obra.

Lorcaren antzerki lanetan musikak duen garrantziaren erakusle da, obra laburra izan arren. Poliziak konfiskatu egin zuen eskuizkribua, eta urteetan atxikita eduki zuten garaiko moralaren kontrakoa izatea egotzita.

Nahitaezko ezkontza baten istorioa kontatzen duen tragikomedioa da antzezlanekoa. Belisa eta Don Perlimplín dira protagonistak nagusiak: sekula maitasuna ezagutu ez duen gizon zaharra neska gaztearekin maitemintzen da antzezlanean. Farsak, tragediak, lizunkeriak eta zurikeriak, barreak eta poesiak ere badute lekua Granadako Histrion Teatrotan lanean.

Datorren astean, bestalde, adinekoen III. Antzerki Jardunaldia izango da San Agustin kulturaguneko hitzordua: Burgos, Gasteiz eta Oñatiko taldeek, eta, Durangoko Gora ta Gora taldeak eskainiko dituzte maiatzaren 27, 28, 29 eta 31n, euren antzezlanak San Agustingo oholdzan. ■ I.E.

12 > Jazz musikaren Jam Session-a

Durangoko Plateruenean da maiatzaren 28an Bartolome Ertzilla Musika eskolaren inguruan sortutako jazz musika jotzaileen elkarretaratzea.



13 > Kulturantzitasuna antzerkian

Bertakoek eta etorkinek osatutako antzerki taldea kudeatzen dute, otsailetik, Karrika antzerki taldeko kide bik. Eguenero daukie hitzordua.

MUSIKA> KONTZERTUA

Jazz musikari eta entzuleei zuzenduriko Jam Session-a

Maiatzaren 28an Plateruena izango da jazz musikaren bilgune

Bartolome Ertzilla musika eskolaren eta Rock Izar eskolaren inguruan dabil-tzan irakasle eta ikasleak, jazz musikaren zaletuak direnak, denak izango dira maiatzaren 28rako Plateruenean antolatu duten Jam Session saioko protagonista.

Durangoko Musika eskolako irakasleek hasiko dute saioa

Hilabete da, Ander Ertzilla musika irakasleak dioenez, emanaldi horretan parte hartzeko gonbita luzatu zietela Durangoko musika eskoletan dabil-tzan musikariei; Durangaldeko jazz bilgune horretan parte hartzeko interesa izan dezaketenei.



Musika eskolako aretoan lortzerik ez dagoen "berotasuna" eskainiko duen espazio baten bila aritu eta Plateruena topatu dutela apropos azaldu digute antolatzailerik; berotasun hori lortzea izango dute jomuga.

Musika eskolako irakasle direnek osatutako taldea hasiko da jotzen, oinarria ipiniz. Ondoren joango dira saiora gehitzen halan gura duten musikariak; guztira 20 musikari inguru arituko dira.

Adostutako oinarri batetik abiatuta egingo dituzte inprobosazioak

Saioaren asmo nagusia entzuleekiko gertutasuna lortzea da

Musikarien euren gozamenarako, Estatu Batuetako klubetan antolatzen zituzten jazz musika eta inprobisaziorako sortutako Jam Session horietako baten antza izango du Durangoko Plateruenekoak, musikarien eta entzuleen gozagarri izan dadin sortutako emanaldia. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Angel Zelaieta Idazlea

Berano Agirre

Ermua uria sortzean, beronen mugak be adierazten dira : « (...) dentro de estos límites siguientes (...) é dende á suso al arroyo que descende de las tejeras é pasajes de Eztacona, é de dicho Eztacona a Artiaga, é del dicho Artiaga al arroyo que pasa a Berano aguirre, é por el camino adelante a Beranogoitia ». Datatzen dau : « Ciudad de Burgos a 20 dias de Enero Hera de 1410 años ».

(Mallabiko Berano Nagusi eta Txikiko toki-izen honeek gaur Eztakua, Artixe, Beranoagarre eta Beranogoitia ahoskatzen dira).

Heraldistek dinoenez, Beranoagirre baten armarriak dakar: « Qui incredulus est non videbit vitam ». Bibliatik jasorikoa da eta hauxe dino: « Qui credit in Filium, habet vitam aeternam; qui autem incredulus est Filio, non videbit vitam, sed ira Dei manet super eum ». "Semearen baitan sinesten duenak badu betiereko bizitzea; aldiz, semearen alderat sinestegabe denak ez du bizitzea ikusiren, baina Jainkoaren hasarrea haren gainean dago" (Duvoisin kapitainaren itzulikerea).

Mallabiko Zengotita-Bengoa etxeko armarria lau abizenen armarriz osotua ei da: Zengotita Bengoa, Berano Agirre, Zengotita Uriarte eta Lazpita. 1866an jarria ei da. Ateburuan jartzen dauenez, Francisco Zengotita-bengoa Iturzaeta eta beronen emazte Maria Jesus de Gangoitik berriztatu eben etxea, 1866an. Francisco hau bertan jaioa zen; karlisten koroneleta komandante, Durangoko batailoan.

Karlisten azken gerratean, Markinako komandantea zen. Zer arrazoigaitik ete dakar Berano Agirre horrek « Qui incredulus est non videbit vitam ». (« Sinesgabe denak ez dau bizitza eternorikikusiko »): liberalen aurka eta karlisten alde ez dagoenak ez dauela garaipenik ikusiko?

FILM LABURRA> EMANALDIA

Zornotzarren memoria historikoa gorde guran

Astelehenean aurkeztu zuten Zelaietan 'Oroitzapenak: acordes para la memoria'

Amorebieta-Etxanoko Udalaren laguntzarekin, Iban Gorriti kazetariak eta Ibai Elortza berriztarrak Gerra Zibila bizi izan zutenen testigantzak bilduta osatu duten lana da *Oroitzapenak: acordes para la memoria* film laburra.

Gerra Zibila bizi izan zuten lagunen testigantzak oinarri

Hain zuzen ere, asteartean bete dira 72 urte Amorebieta-Etxano frankistek hartu zutela, eta aurreko egunean aurkeztu dute (72 urteren ondoren) testigantzak jasoz Gorriti eta Elortzak osatu duten ordu erdiko ikus-entzunezkoaren. Zornotzako Zelaietan eman zuten filmea.

Orain 5 urtetik memoria historikoa berreskuratzeko lanean diharduen Ebakuatuen Lagunak elkartearen enkarguz osatutako lana da *Oroitzapenak*. ■ I.E.



I. Gorriti

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

MAIATZAK 22 22:00etan
LOR ("rock terapia" disko berria) + NAMEK PLANET
KONTZERTUA. Sarrera: 6 euro.

MAIATZAK 24 17:30etan
EUSKAL KARAOKEA
TXATXILIPURDI ELKARTEA
AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

MAIATZAK 28 21:30ean
DURANGO [H]OTS II. JAM SESSION
Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskola
KONTZERTUA-JAM SESSION. Sarrera doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

DIEGO EL CIGALA
"DOS LÁGRIMAS"

LANDAKOGUNEA (Durango)

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Maiatzak 30
larunbata 22:00etan

HITZ

Liburua

11.54 601 07 76 Artekale, 14 Durango

ERREPORTAJEA > ANTZERKIA

Gazte etorkinak eta bertakoak antzerkiaren inguruan elkartzen dituen Durangoko taldea

Karrika antzerki taldeak kudeatzen duen tailerrean batzen dira Senegal, Mali, Mexiko, Venezuela, Errumania eta Peruko parte-hartzaile gazteak; baita durangar eta bereberek ere. Ekainaren 20an Durangon dute emanaldia.



Otsailean sortu zen taldea, Durangoko Udalak Karrika antzerki taldeari enkargua eginda. Hasieran, hiru hilerako data zeukan tailerra zen, eta Karrikako Joana eta Irati dira tailer emaileak. Taldeko gazteetarik batzuek badute aurretiko esperientzia antzerkiarekin harremanetan, baina gehienek ez dute antzerkiarekiko lehenagoko loturarik. Instrumentuak jotzen dituzte batzuek, eta antzerki zaletasuna guztiek daukate.

Orain arteko taldearen martxaren balorazio oso positiboa egiten dute: parte hartzen diharduen jendearekin oso pozik dauden arren, bertako jendearen inplikazioa bultzatzea litzateke datozen edizioetarako helburua. Durangarrak hiru ei dira talde honetan. Helburua ez zen etorkinen talde bat sortzea, denek batera antzerkia esperimentatzea baizik.

Senegal, Mali, Mexiko, Venezuela, Errumania, Peru eta Durangokoak dira taldekideak, eta bereberek ere badaude. Antzerkiaren inguruan igaro duten denbora horretan sortu da bakoitzaren bizitzako istorioak konpartitzea. Eguenero antzerkiaren ingurura biltzen direnak, 15 urtetik 24 urtera arteko lagunak dira.

Senegal, Mali, Mexiko, Venezuela, Errumania, Peru eta Durangokoak dira taldekideak, eta bereberek ere badaude. Antzerkiaren inguruan igaro duten denbora horretan sortu da bakoitzaren bizitzako istorioak konpartitzea. Eguenero antzerkiaren ingurura biltzen direnak, 15 urtetik 24 urtera arteko lagunak dira.

Kultur aniztasuna

Antzerkiaren inguruko baliabideak erakutsi eta ikasteko, inprobisazioa, gorputz espresioa, ahotsaren erregistro ugarien esperimentazioa, arnasa, erritmoa, hitza erabili barik komunikatzeko modu askotarikoen esplorazioa... lantzen dituzte asteroko saioetan elkartzen direnek.

Hainbat kulturatako jendea antzerkiaren inguruan batzen dute, etorkinak eta durangar jendea ere tailerrean parte hartzera deitzea izanik helburu. Taldean, baina, etorkinak dira gehienak; durangarrak ez ei dira lar animatu.

Dozena bat lagun hasiziren taldean batzen, eta hamar-hamaika lagun inguru batzen dira eguenero. Hasieran, Durangoko San Agustinen hasi ziren, eta Landakon dauden udal loka-

letan azken asteetan. Harremana aberasteko, elkartrukea sustatzeko plataforma izan gura du antzerki talde honek.

Datorren hilean, ekainaren 20an, kale antzerki emanaldia egingo du taldeak Durangon. Hasiera batean euren ideia ez zen obrarik plazaratzea, baina proposamena jaso eta taldekideak gogotsu daudelako egingo dute emanaldia. Taldearen erritmoa jarraitzea izan da

Antzerkiaren inguruan jolastea da talde honen zutabe nagusietakoa

“Gorputz adierazpena eta irudiak izango dira ekaineko kale antzerkiaren oinarri”

Dozena bat lagun dira, astero-astero, talde honetara batzen direnak

saioen martxa markatu duena, eta horregatik erakutsiko dute hilebeteotan landutakoa.

Kale antzerkia Durangon

Munduko Arrozak jaialdia egingo da ekainean Durangon, eta parte hartzea proposatu die Udalak, euren lana erakustea. Egun horretan Durangoko kaleetan eszenaratuko duten istorioa zehazten zebiltzan argazkian jaso dugun joan zen asteko hitzorduan.

Oholtza gainean ez bezala, kalean askotan antzezleek hitzak ez direlako behar bezala entzuten, eta talde honetan bestelako komunikazio-bideak asko landu dituztelako, gorputz adierazpena eta bestelako irudiak baliatuko dituzte ekainaren 20ko kale antzerki emanaldian.

Lan horretan ere Karrika antzerki taldearen filosofia eta dinamika berarekin jarraituko dute; atrezzoak etab. taldekideek eurek sortuko dute. Laguntzeko, Karrika taldea aldamenean dute, “Karrika osoa dago istorio honetan sartua”, dio Karrikako kide eta antzerki talde honetako irakasle den Iratik.

Antzerkiaren aitzakian sortu duten talde honetan, eurak antzezle bihurtzeaz gainera, elkarrekin antzerki emanaldiak ikustera joateko aukera izan dute aldiro. Esker oneko daude San Agustingo kudeatzaileek bertan programatutako antzezlana ikustera gonbidatu dituztelako, eta Elorrioren ere hainbat ikuskizunekin gozatzeko aukera izan dutelako. ■ I.E.

Euskara eta antzerkia komunikazio tresna

Euskara komunikaziorako hizkuntz baliabide nagusia izanda, oinarri horretatik hainbat kultura eta hizkuntzatarako gazteek zelan elkar ulertu dezaketen frogatzeko balio izan du esperientziak: batzuek euskara eta gaztelera ez dituzte ezagutzen, eta beste batzuek apur bat ezagutzen dute euskara. Guztiek dakitena eta baliatzen ikasi dutena gorputzaren hizkuntza da. “Azken batean komunikazioa ez da hitza bakarrik”, tailerraren kudeatzaileek dioten moduan. Hitzik barik ere komunikatzen dugulako.

Jolasa, antzerkia da egueneroko hitzorduaren zutabea, eta jolasaren bitartez sortzen dira istorio eta antzezlana: desinhibizioa lantzeko jolasak eta inprobisazioa dira, besteak beste, taldearen martxara moldatzen dituztenak saio bakoitzean, lotsak alboratu eta teknika teatralak ikasten hasteko.

“Hasieran hiru hilebeterako egitasmoa zena luzatu egin da”

Bertakoen parte-hartzea handiagoa izatea gura luketela diote kudeatzaileek

ANTZERKIA > EMANALDIA

Donostiako TESS talde amateurra Berrizen

Berrizko Kultur Etxera dakar Teatro Estudio taldeak 'Va de bromas' maiatzaren 29an



Maiatzaren 29an du emanaldia Berrizko Kultur Etxean Donostiko TESS antzerki talde amateurak. Orain oholzaratzen dabilzan lana dakar taldeak 22:00etatik aurrera: *Va de bromas* izeneko antzezlan.

Ohikoa baino antzerki obra laburragoak direnez, antzokietan gutxitan taularatzen diren testu biren moldaketa izango da Berrizen datorren barikuan.

Hipokrisia salatzen duen Dario Fo antzerkigile italiarraren *No hay ladrón que por bien no venga* komedia eta antzerki absurdoaren egile garrantzitsuenetarikoa izan zen Eugene Ionesco idazlearen *El maestro* eskainiko dituzte; elkar engainatzen duten bikote-kide biren istorioa eta munduaren kontraesanei buruzkoa.

Manolo Gómez taldearen zuzendariak nabarmentzen duenez, gaur egun gutxi oholzaratzen diren antzerkigintzako "bitxiak berreskuratze" helburuarekin hautatutako testuak dira biak.

Dario Fo eta Eugene Ionesco-ren antzerki obrak ekarriko dituzte

TESS taldeak 45 urtean dihardu antzerki amateurra egiten

Gaur, 'Ogiyic karri etzun semia' obra da ikusgai Berrizko Kultur Etxean

Orain 45 urte, 1964an, Donostian sortutako antzerkizaleen taldea da Teatro Estudio San Sebastian, hainbat taldetan antzerkian zebiltzan lagunak elkartuta sortu zutena. Urteek eta hainbat antzezlan ekoitzi izanak ematen duen esperientzia oinarri hartuta sortutako *Va de Bromas* emango dute datorren barikuan Berrizen.

Txirene Antzerkia

Aipatutako TESS antzerki taldearen lanaren aurretik, gaur ere antzerki emanaldirako aukera dago Berrizko Kultur Etxean: *Ogiyic karri etzun semia* oholzaratuko du Txirene Antzerkia taldeak. Ama baten eta unibertsitatean daukan semearen arteko harremanak kontatzen duen bakarrizketa da komedia honen hari nagusia.

Amak bere seme-alabei emandako hezkuntzaren eta "ogirikartzen ez duen seme" horren jokabidearen arteko aldea eta bien arteko ezin ulertu eta eztabaidak jasotzen ditu lanak. ■ I.E.

ARTEA > ERAKUSKETA

Karlos Martinezen 'Ez dira pasako' erakusketa

Durangoko Udalaren diru-laguntza jaso zuen lana maiatzaren 31 arte dago ikusgai

Durangoko Udalak 2007an banatu zuen Sorkuntza Artistikoa Bultzatzeko Bekaren onuradunetarikoa bat izan zen diseinatzaile grafikoa den Durangoko 25 urteko Karlos Martínez. Bere lana egiteko diru-laguntza eskaini zion, beraz, 2007ko deialdian Durangoko Udalak, eta *Ez dira pasako* izena daraman lana da diru-laguntzarekin osatu duen emaitza.

Durangoko Udaleko epaimahaiak, aurkeztutako beste zazpi proiekturen artean berea hautatu zuelako diru-laguntza publi-

Durangoko Arte eta Historia Museoa dago erakusketa

Suspentsea gai nagusi moduan hartuta osatutako lanak

koa jaso zuen Martínezek, eta bere proiektua aurrera atera. Durangoko Arte eta Historia Museoa maiatzaren zehar bisitagai dagoen erakusketa da osatutakoa.

Durangoko gazte batzuei egindako argazkietatik abiatuta, jendaurrean erakusteko bideo-sorkuntzak egitea zen aurkeztutako proiektua. Lanaren gain nagusia suspentsea izango zela aurreratu zigun Martí<<nezek, eta 2.500 euroko diru-laguntza izan du lana burutzeko eta erakusteko. ■ I.E.



MUSIKA > KONTZERTUA

Organo kontzertua gaur San Frantziskon

Roberto Fresco organistak estreinatuko du San Frantziskoko organo berriztua

Gaur, maiatzaren 22an, Durangoko San Frantzisko monastegiko organo berriztu ondoren, Rutter, Mendelssohn Pierne eta Guilmant-en lanak entzungai izango dira bertan. 20:00etan, Madrilgo Roberto Fresco eskainiko du kontzertua.

Azpeitiko Agustin Bernal eta Benito Kortak zaharberritu dute organoa; ia bi hilabeteko lana izan da, eta guztiz berritua dago gaurko kontzerturako. Lan hori egiten zebiltzala egindako argazkien emanaldia ere izango da

gaurko San Frantzisko monastegiko emanaldian.

Parisko Cavaille-Coll enpresari 1878an erositako organoa da San Frantziskokoa, garaiko onenetakoa. Ordutik, 1915ean handitu eta 80ko hamarkadan konpondu egin zuten. ■ I.E.

Gaurko kontzertua Roberto Fresco madrilarrak eskainiko du

MUSIKA >

Malo elorriarrak euren lehenengo diskoa aurkezten

Euren herrian, Arriola kultur aretoan Ateneoan, egin zuten joan zen barikuan diskoaren aurkezpena Elorrioko Malo musika taldekoek. Joan zen urte amaieran plazaratu zuten Txaber, Mani, Baron eta Dummyk Malo izeneko diskoa.


Diskoaren aurkezpena eta jaia izan ziren Ateneoak: Maloren kanten ondoren, goizaldera arte herriko Rojo eta Teo disko-jartzaileak aritu ziren jendea dantzazteko musika ipintzen.

Disko horretan sartutako 'power pop' estiloko hamaika abesti Ateneoan eta herritarren aurrean jotzeko aukera izan zuten.

Orain bi urte sortutako taldea da Malo, Elorrioren lehenago ere, iraileko Ferixa Nausiko jaietan, kontzertua eskaintzeko aukera izan zuena. ■ I.E.



Kepa Aginako



Berbaro elkarteak, hogeitun urte euskararen aldeko lanean



20 urte bete ditu aurten Durangoko Berbaro euskara elkarteak. Lagun talde batek sortu zuena asko hazi eta zabaldu da urteotan zehar, herriko euskalgintza arloan erreferentzia bilakatuz. Lan asko eta proiektu ugari atzean, ideia edo apustu barriak aurrean. ANBOTOk be tarte bat hartu dau atzera begirako errepasoa egin eta gerorako asmoen barri jakiteko.

1 989an emon zituen lehenengo urratsak Berbaro Elkarteak. Durangoko eskal hizi-tunen kopuruak eta euskararen erabilera arduratuta, bildu eta lanean hasi zen euskaltzale talde bat, zeozer egin behar zelakoan. Hasierako asmo hareek sendotu eta proiektua egi bihurtu zen. Urteetan egindako lanaren ondorioz, Berbaro erreferentzia garrantzitsua da herriko euskalgintzan.

Euskararen aldeko militanteek, arloko ez-profesionalek, osatzen eben elkarteak, lan-talde anitzetan banatuta. Pertsona honeengoko eta intuiziotik sortzen ziren ideia eta ekitaldiak, eta liberatuen funtzioa euei bidea erraztea zen. Denpora gitxiren buruan, Berbarok 300 bazkidetik gora zituen (egun 432 ditu), eta 60 bat ziren lan-taldetan parte hartzen ebenak. Ordukoak dira Haur Literatur Aretoa, bertso afariak edo osasun zerbitzuetan

nahiz informazio karteletan euskarari gehiago erabiltzeko kanpainak. Horretaz gainera, egoitza, dinamizatzailea eta udalagaz hartu-emonak ipini ziren martxan.

Sortu eta denpora gitxiren buruan, Berbarok 300 bazkidetik gora zituen

Aipatzekoa da Berbarok beste hainbat proiektu lagundu edo bultzatu izan dituela: Euskara Elkartearen Topagunearen osaketa, Egunkariaren aldeko dinamika eta Berria egunkariaren sorrera, besteak beste.

Elkartearen zabalpena

Urteak aurrera joan ahala, Berbarok bi premina nagusi zituen aurrez aurre: euskaltzaleentzako bilgunea eta diru-iturri propioak handitzea. Hausnarketa horretatik jaio zen Berbaro Taberna, 1994an. Batzeko aukera, kontzertuak eta erakusketak ekarri zituen tabernak, baina baita proiektu barrietarako dirua be. Proiektu euskaltzale bat bideragarria zela erakutsi eban tabernak, eta kudeaketan be esperientzia handia emon eban. Hori dela-eta, hortik aurrera "txip" aldaketa gertatu zen kideen artean: bizi propioa izango eban egitasmoak sortzea posible zela ikusi eban.

Komunikazioa, kultura eta gazte arloak ziren elkartearen orduko lehentasunak, eta horretan ipini eban indar guztia. Alorrez alor, proiektu esanguratsuak gartzen joan ziren. Horren adibide

da Eraz aldizkaria, gerora gaur egungo ANBOTO hau izango zena.

1993an argitaratu zen lehenengoz Durangaldeko euskarazko aldizkaria. Lan asko egin zen horretarako: txosnak ipini ziren, egutegiak saldu ziren, bideragarritasun txostenak osatu ziren... 3.000 etxetara ailegatzen zen Eraz, eta, guztira, 9.000 irakurle izango ziren. Baina eskualdean 30.000 bat lagun ziren euskaraz irakurtzeko gai, eta elkartekoen ustez "ez zen nahikoa". Irakurle kopurua handitu eta ekonomikoki

bideragarriagoa izateko asmoz, komunikabidea eraldatu eban: Durangaldeko gainerako euskarar elkarteekin batu eta ANBOTO astekaria sortu eban. Eratzekeskatzen eban kuota kentzea erabakiz, hedabide barria doakoa izatea adostu eban, lehenago zehaztutako helburuei begira. Gaur egun, 8.000 buzoi baino gehiagotara ailegatzen da ANBOTO bari-kuro, 24.000 irakurlerengana helduz. Hortxe dagoz, proiektu berean, ANBOTO Irratia eta www.anboto.org webgunea be.

Komunikazioagaz jarraituz, itzulpengintza eta diseinu zerbitzuak ipini ziren martxan. Lehenengoa 1991n eta bigarrena 2000. urtean. Itzulpengintza zerbitzua Udalean barneratu zen, eta diseinuarenak bizirik dirau Di-Da kooperatibagaz.

Arloz arlo

Berbaroren beste lan-lerro nagusi bata kulturegintza izan da. Batez be, taberna eta Plateruena izan dira ekitaldien kabi, horra mugatu ez arren. Elkarte-ko kideek dinoen moduan, "intuizinoak tabernara eroan gintuen, eta tabernako esperientziak antzokira". 2004an zabaldu zituen ateak Plateruena, 800 lagunaren ekarpen ekonomikoa, enpresa zein erakun-

Proiektu euskaltzale bat bideragarria zela erakutsi eban tabernak

Komunikazioa, kultura eta gazte arloa izan dira lehentasunak



de batzuen laguntza eta jente askoren “konta ezineko” lan orduei esker. Plateruena agente garrantzitsua da gaur eskualdeko nahiz oro har euskarazko kulturaren sustapenean, kultur eskaintza zabalagaz.

Berbarok, baina, zuzenean be eusten deutso: adibide argiena Haur Literatur Aretoa da. Bertan, Durango eta inguruetakoko ume eta gaztetxoek literaturaren hainbat eremu ezagutzen ditue, modu atseginetan. Horretaz gainera, irakurzaletasuna bultzatzeko *Ira-kurri*, *gozatu eta oparitu* kanpainan adin guztietako jentek parte hartu leike. Bestalde, eskualdeko elkarteekin elkarlanean kultur zirkuituak bultzatzen ditu Berbarok. Euskarazko film laburren zirkuituan parte hartzen dau, ikastaro laburrak egiten ditu eta klasiko bihurtu den urteko azken bertso saioari arrakastaz eusten deutso.

2004an zabaldu zituen ateak Plateruenak, 800 lagunak elkarpen ekonomikoagaz

Gazte arloari jagokonez, lanketa berezia egin izan dau Durangoko euskara elkarteak

Ume eta gazte arloari jagokonez, lanketa berezia egin izan dau elkarteak. Gaur egun be, esparru horretan egiten da inbertsion handiena: sei langiletik bi horri begira dagoz. Helburua, ume eta gazteei euskaraz gozatzeko aukerak eskaintzea da. Urtean zehar umeei zuzendutako ludoteka bi zuzentzen ditu Berbarok, tartean, Plateruenean gauzatzen den *Olgetan* ludoteka. Udalekuak, lehia-ketak eta sasoiak jaialdiak be egiten ditu.

Ezin alde batera itzi, baina, euskalgintzako beste hainbat eragileguz elkarlanean egindakoak. Berbarok Topaguneako zuzendaritzan eta batzordeetan parte hartzen dau, Durangoko euskaltegi eta Udalgaz batera Berbalagun egitasmoaren parte da eta Durangoko Udaleko euskara batzordean parte hartzen dau, besteak beste. Honegaz lotuta, hainbat sentsibilizazio kanpainetan be parte hartu dau azken urteotan: errenta aitorpena euskaraz egitekoan, merkataritzan euskararen erabilera areagotzekoan, eskolaren euskalduntzekoan...

20 urte bete ditu aurten Berbarok, euskaraz bizi gura dabenen bilgunea. Data esanguratsua da, egindakoa baloratu eta gerora begira hausnartzeko. ■ M.O.

“Gaur egun be, gure erronka garrantzitsuenen artean dago gazte arloa”



Berbarok elkartearen sorrera sasoiak dihardu bertan, ia-ia, Jon Aizpuruak. Sortu eta gitxira egin zen bazkide. Gaur egun, elkarteko lehendakaria da.

Berbarok 20 urte bete dituen honetan, zer balantze egiten dozu elkartearen ibilbidearen gainean?

Berbarok euskaraz bizi gura dogunon bilgunea dela esango neuke, eta bere helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea izan da, bai lehen bai orain. Denporagaz gauza batzuk aldatu egin dira; esaterako, Berbarok asko irabazi dau baliabide aldetik: hasieran langile bat bakarrik zegoen, eta orain sei dagoz. Horrek elkartearen lana errazagoa eta hobea izatea ekarri dau.

Zelan gogoratzen dozuz hasierako sasoi hareek?

Hasiera guztietan legez, gauza batzuk onak edo gozoak ziren, eta beste batzuk ez hainbeste. Gogoan dot, esaterako, Erazen bideragarritasuna zalantzan zegoela garai batean. Zorionez, aurrera egitea erabaki genduen, eta uste dot asmatu egin genduela. Emaizta gaur egungo ANBOTO da. Momentu on moduan, adibidez, Berbarotarra buletina bi bazkideren artean ateratzen genduenekoa: bere etxean egiten genduen guztia.

Zer arlotan egindako lana nabarmenduko zeunke?

Nire ustez, urte honeetan guztietan, Berbarok azpiegiturak sortzeko gaitasuna erakutsi dau. Hortxe dagoz Eraz eta ANBOTO, edo taberna eta antzokia, adibidez lez. Bestetik, elkarteak garrantzia handia emon

deutso gazte arloari, eta gaur egun be erronka garrantzitsuenen artean dago gai hori. Gainera, Berbaroren etorkizuna be horren gainean dago. Izan be, gaur egungo zuzendaritzan eta langileen artean Berbaroko gazte taldean ibilitako kideak dagoz. Irakurzaletasuna indartzeko eginiko kanpainak be aipatuko neukez, eta horren harira sortutako Haur Literatur Aretoa be bai.

Zeintzuk dira Berbaroren helburu nagusiak datozen urteetarako?

Hiru egiteko nagusi daukaguz. Alde batetik, gazte taldea barriro martxan jartzea; dagoeneko badagoz batzuk lanean udalekuekin, begiraleekin... Bestetik, bazkideekin dogun hartu-emonak hobetu behar dogu; izan be, langile gehiago izatera, bazkideen ekarpena txikitu egin da, eta hor proposamenen bat egingo dogu komunikazinoa hobetze aldera. Azkenik, Durangoko elkarte eta erakundeekin daukaguzen hartu-emonak indartzea gura dogu, eta baita Euskal Herrian gure arlo berean dabilzen elkarteekin be.

Lanaz aparte, baina, orain ospakizunak be izango dozuez, ezta?

Bai. Irailean ospatuko dira ekitaldiak, baina oraindino ez dago guztiz zehaztuta zelan garatuko diren. Dena dela, ospakizunetan parte hartzera animatzeko gonbidapena luzatu gura deusagu jenteari.

Udalekuak: euskara erabiliz ondo pasatzea helburu

Berbarok elkartearen lehentasunen artean beti egon izan da ume eta gazteekin egin beharreko lana. Urteetan zehar eskaintza berezia egin izan jake gaztetxoek, euren aisialdia euskaraz egin zeien. Aurten be, eskualdean hainbatek parte hartuko dau euskara elkarteak antolatutako udalekueetan.

Ekainean eta uztailean garatuko dira ekintza honek, baina martxoan hasten dira lanean Berbarokoak. Prestaketa teknikoaz aparte, edukien aldetik be lana izaten dabe, eta udalekueetan egoten diren begiraleekin formaziorako saioak egiten ditue. Aurten 80 begiralek jardungo dabe lanean, gitxi gora-behera.

Udalekueetan, ume zein gazteek ondo pasatzea dabe helburu. Berbaroren asmoak, baina, sakonagoak dira. Lehenik eta behin, gaztetxoek egiten dabena euskara erabiliz egiteari emoten jake garrantzia. Bestalde, beste balore batzuek be badaukie pisua: kulturartekotasunak edo hezikidetzak, esaterako.

Ehunka ume

Ekain amaieran hasiko da aurtengo eskaintza, inguruko udalek eskaini eta Berbarok kudeatuko dauena. Goizez izango dira udaleku honek: Durangon 440 ume inguruk parte hartuko dabe, Mallabia eta Abadiñon 50ek eta Garain 20k. 12 urtera arteko umeak izango

dira, eta batez be tailer eta kultur ekimenekin gozatuko dabe.

Bestalde, uda sasoiak kanpoan be pasatuko dabe 80 bat gaztek. Ozaetan antolatu dabe udaleku finko bat. Berbarok, Euskal Herriko beste euskara elkarte batzuekin elkarlanean, udaleku ibiltari bi be prestatu ditu, abentura gurago

dabenezkat: Urduñatik Castrorabata, eta Garaioetik Bermeora bestea. Mendi ibilaldiak eta ur-ekintzak izango dira menu honeen plater nagusiak.

Euskara sustatzeko tresna polita dira Berbaroren udalekuak, dibertitzeko eta lagunak egiteko aukera aparta direla ahaztu barik.



ERITZIA[>]

Gutunak



kolaborazinoa



Aitor Aurrekoetxea

AHT = Kapitalismoa = Esplotazioa

Kapitalismoa sistema hauskor bat da. Denbora pasa ahala, honek berregituraketa bat behar du berak sortutako baldintzei egokitzeko. Horregatik esaten da bere krisiak ziklikoak direla. Gertakari hauek ez dira sistemaren "gestio txar" bategatik sortuak izan; krisi hauek bizirik jarraitzeko behar duen berregituraketa bat besterik ez da. Argi dago krisi hauek ez dituztela sortu ordaintzen dituztenek; alderantziz, beti dira berdinak ondorioak jasaten dituztenak: langileak, esplotatuak...

Aipatzekoa da sistema ez dela anonimoa, izenak eta abizenak dituelako. Gertakari hauek guztiek arduradun zuzen eta zeharkako arduradunak dituzte. Zuzenak, enpresarien klasea, patronala eta euren zerbitzurako politikariak. Zeharkakoak, edukia kritikatu barik formak kritikatzera mugatzen direnak; hau da, "gauzak nola egin diren" galdetzen dutenak "gauzak zertarako egin diren" galdetu beharrean.

AHTa inposatu diguten modelo ekonomiko, sozial eta desarrollistaren ikonoa da. AHTak gaur egungo produkzio-konsumisio oinarritutako sistema bermatzen baitu. Gauzak ari nago mugitzea arinago produzitzeko, ondorioz arinago kontsumitzeko, bizitzeko...

Kapitalismoak komunikazio sare zabalak behar ditu, bai trenbidetakoak, errepidetakoak edo telematikakoak, eta AHTa hauek hornitua da, baina denbora mugatu batean, zeren eta kapitalismoaren oinarrietako bat bere onurak handitzea, kostuak merketzea eta denborak txikitzea da. Horregatik, gaur egun ekonomia solido, tinko eta beharrezkoa den zerbaite saltzen digutenean, denborarekin zaharkitua geratuko da, eta infrastruktura gehiago egin beharko dituzte maila berean jarraitzeko.

AHTa kritikatzeko dugunean, ezin gara horretan geratu. Hara tago begiratu behar da, eta egitura guztia ezagutzera eraman. AHTa sistema eta modelo baten fruitua delako, sistema kapitalista eta bere garapenarena. AHTa garapen deitzen diogun zati (garrantzitsu) bat besterik ez da, sistemak hasteko eta indartzeko dituen forma ulertzen dela ulertzen dugularik.

Esan dugun bezala, garapena kapitalismoaren oinarritzko zati bat da, orduan, AHTa kapitalismoarentzat eta kapitalismoarengatik eginiko infrastruktura bat da, esplotatzen gaituen kapitalismo bera (egun krisian dagoena), komeni zaionean baztertzen gaituena. Honegatik, AHTaren aurka borrokatzea kapitalismoaren aurka borrokatzearen ondorioa da, eta horrekin batera langilearen duintasunaren alde borrokatzea da. Edo alderantziz, AHTaren aurka borrokatzea esplotazioaren aurka borrokatzea da, eta alderantziz.

Beste kontu bat makina honen aurka nola borrokatu da. Ezin gara borrokatzeko modu tradizionaletan finkatu, kapitalismoak modu hauek bereganatzen jakin baitu.

Langilearen organizazio zuzenaren alde apustu egiten dugu, asanbleen bitartez, non mundu guztiak kondizio beretan erabaki dezakeen, eta non antolatzeko erak modu horizontala duen eta gu geu gure erabakien erantzule garen, inori eta inor delegatu gabe. Guk bakarrik dugularik gure kateen giltza.

Sistemaren aldaketa erreal baten aldeko apustua egiten dugu, ez dugu hobetu nahi, ezta zuzendu ere, kapitalismoa akatu nahi dugu, horrela bakarrik eraiki dezakegulako beste antolakuntza sozial bat.

Durangaldeko desarrollismoaren aurkako taldea

Langileok krisian eta 10.000.000.000 euro AHTa egiteko?

Maiatzaren 21a greba eguna izan da Hego Euskal Herrian. Milaka eta milaka langilek aurre egin diote bizi dugun egoerari. Baina maiatzaren 21ean ez da borroka bukatu.

Aste honetan bertan, Eustatek Euskal Autonomia Erkidegoa atzeraldi ekonomikoan dagoela jakinarazi du. Horren aurrean, Eusko Jaurlaritzako sailburu guztiek batzartzeko asmoa zeukaten sail bakoitzetik zenbat diru aurreztu daitekeen erabakitzeko, baina... noski, AHTa eraikitzeko EAEn bakarrik gastatu nahi dituzten 6.000 milioi euroak (euskal herri osoan 10.000 milioi) ukitu ere ez dituzte egingo!

Diru publikoa esku pribatueta bideratzen dute, hormigoia- enpresak AHTa eginez aberastu daitezten. Guri, bitartean, murrizketak arlo guztietan, eta horretan alferrik galtzen duten dirua ez dute beste gauza batzuetan inbertituko (hezkuntza, osasuna, kultura, etxebizitza, gizarte-laguntzak...). Baina, ez dezagun ahaztu, diru publikoa gure dirua da, guk ordaindutakoa, eta ez dute gure onerako inbertituko.

Azken 5 urteotan euskal familien zorrak bikoiztu egin dira. 2008ko urritik hona 30.000 lanpostu desagertu dira Euskal Herrian. EUSTATen arabera, EAeko 13.000 familiatan kide guztiak langabezian daude. Eta horren aurrean, EAeko adin nagusiko pertsona bakoitzeko 4.859 euro gastatuko dira AHTa egiteko!!

Duragaldean ere, lan erregulazioko txostenak onartu dituzte hamarnaka enpresatan, lantegiak ixten dabilta eta 7.000 langabetutik gora daude (erregulazio txostenetakoak zenbatu gabe). Baina gure eskualdean bakarrik, Arrasatetik Zornotzarainoko tartean, 113 milioi eurotik gora gastatu nahi dituzte AHTa eraikitzeko.

Eta ez ahaztu AHTak inondik inora ere ez digula langileoi onurarik ekarriko, hormigoia- enpresariak aberasteko asmakizuna baino ez baita.

Egoera ekonomiko makal honetan, Gasteizko eta Madrilgo gobernuek txikizioarekin jarraitzen dute, eta orain dela gutxi Orozketan eta Larrinagatxun makinak sartu dituzte eta ingurua suntsitzen dihardute. Horren aurrean, langileok ere erantzun egin behar dugu!

Langile, badakizu zuri zergen bidez kentzen dizuten dirua zertan gastatzen duten, badakizu krisiari aurre egiteko erabili beharko luketen dirua zertan alferrik galtzen duten, beraz...

Langile, AHTaren aurkako borroka zure borroka ere bada! Parte hartu txikizioa geratzen! Zure indarra ere behar dugu!

Durangaldeko AHT Gelditu! Elkarlana

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

Europa

Europar Hauteskundeak hurrengo hilean izango badira ere, aspaldiko partez sumatzen dugu kontinente zahararen batasuna oso aldrebes eraikitzen ari dela, langile eta herrien Europa beharrean, kapitala eta merkatu librearen Europa bihurtzen ari baita. Horrek guztiak ez dauka batere zer ikusirik kulturarekin eta europar guztion arteko anaitasunarekin, bizitzaren merkantilizazio zorrotzarekin baizik.

Dena den, onartu beharra dago Europako Banku Zentralak FMI baino hausnarketa argiagoak egiten dituela askotan, eta horrekin lotuta Europar Parlamentuak erabakitzen dituen araudien bidez lortzen dela estatuen arteko oreka.

Langile eta herrien Europa beharrean merkatu librearena bihurtzen ari da

Horregatik, oso ahul bada ere, gure iritzia heldu daiteke Europako *Agora* nagusira. Hala ere, hori orain arte horrela izan da, eta Ipar Euskal Herrian horrela izaten jarraituko du. Ni ez naiz hexagonoren ibilbidea defendatuko duena, baina esan genezake frantsesek formak gutxienez gordetzen dituztela.

Estatu espainiarrean, berriaz, gauzak beste era batekoak dira. Hemen eskubideak, estatu baten ezaugarri inportanteak izan beharko liratekeenak, alegia, botereen arteko banaketa eta delituak omen direnak frogatu beharrak, aspaldidanik desagertu ziren. Azken horren adibide da Ekimen Nazionalistarekin gertatu dena. Alfontso Sastre eta beste hainbat lagun ez euskaldun ezin izango dira hauteskundeetara aurkeztu. Bien bitartean, gure intelektualek isilik eta desagertuta. Hau lotsa eta tristura!



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2009ko maiatzaren 22a - 8. urtea - 331 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mañaria
Atxondo	Garai	Mallabia
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez.,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.

Abuztura bitartean martitzenero bezeroaren eguna Plateruen jatetxean. eguneko menua 7euro



AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Maiatzaren 22an, 22:00etan

ZALANTZAZ BETETA

Berrogei urteak beteta, krisiak jota dagoen gizonezko baten estualdiak aurkeztuko ditu Patxi Pérez aktore ezagunak Arriolako oholtzan. Berak sortutako 'Marika de Playa' obran, Mila Espiga aktoreagaz dihardu. Zalantza-itsaso baten murgilduta, bakardadetik ihes egin eta desioak lortzeko irtenbidearen bila diharduen gizonak eta ihesean dabilen eta eguzkia lasai hartu gura dauen emakumeak bat egingo dabe, hondartzan.

ANTZERKIA

ABADIÑO

> 'Ni izango naiz the number one' (Matxin), maiatzaren 22an, 22:30ean, Abadiñoko gaztetxean.



BERRIZ

> 'Ogiyic karri etzun semia' (Txirene antzerkia), maiatzaren 22an, 22:00etan, Kultur Etxean.



DURANGO

> 'Urkuletako bainuetxea' (Kurutzia Ikaolako antzerki taldea), maiatzaren 22 eta 23an, 22:00etan, San Agustin kulturgunean.

> Adinekoek antzeztutako III. Antzerki Jardunaldiak, maiatzaren 27, 28, 29 eta 31n 19:00etan, eta hilaren 30ean 20:00etan. San Agustin kulturgunean.

ELORRIO

> 'Marika de Playa' (Glu Glu Producciones), maiatzaren 22an, 22:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA

> 'Euskarazetamol' (Bikoteatro), maiatzaren 22an, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.



ZORNOTZA

> 'Barre laborategia' (Enlaila antzerkia), maiatzaren 23an, 18:00etan, Zornotza Aretoan.



DURANGO

> Euskal karaokea, maiatzaren 24an, 17:30ean, Plateruenean. Txabxilipurdi elkartearen eskutik.

> Inurri eskaut taldearen 25. urteurren jaia, maiatzaren 23an. Harrera, taldearen lokalean 10:00etan, eta, 10:30ean, Jesuiten elizan ospakizuna. Ohorezko Aurrekua 11:30ean, eta ondoren Landako erakustazokara kalejira; 12:00etan, luntxa. Erakustazokan, gaztelu puzgarriak, jolasak eta tailerrak egongo dira herritar guztientzat zabalik.

> Inurri eskaut taldearen 25. urteurren jaia, maiatzaren 23an. Bazkaria, 14:30ean, eta, 16:30ean, 'Zorionak zuri'. Ondoren, 16:45ean, Inurriren gaineko ikus-entzunekoa, eta 17:00etan eskaut taldeko taldeen ikuskizuna. Erromeria, 18:30ean, eta 19:45ean mendiko materialaren zotz egitea. Jaiagaz amaitzeko Agur Eskaut, 20:00etan.

ERMUA

> Gaztela-Leongo kultur astea, maiatzaren 25etik 31ra, hainbat ekintza Gaztela-Leongo kultur zentroak antolatuta.

IURRETA

> VI. Okela eta Ardao Azoka, maiatzaren 23an, 11:00etatik 15:00etara, Askondo kalean. Ardao dastaketa, 12:00etan eta 13:00ean. Umeendako jolasak be egongo dira.



> Mendi ibilbidea: Iurreta-Azkorra-Gallanda-San Juan-Iurreta, maiatzaren 24an, 09:00etan, Aita San Migel Plazatik irtenda.

MALLABIA

> Tute eta Briska Txapelketa, maiatzaren 22an. Jubilatuen Etxean. Ondoren, txokolatea bazkide guztientzat.

ZALDIBAR

> Gaztelekua 12-16 urte bitarteko gazteentzat: Eskulanak eta drogen inguruko mahai-ingurua, maiatzaren 22, 23 eta 24an, 16:00etatik 20:00etara.

> Eskualdeko II. Pilota Txapelketa, maiatzaren 22an, 19:00etan, Olazar frontoian; 23an, 16:30ean.

> Zapatublai, maiatzaren 23an, 16:00etatik 19:00etara, Herri Eskolan.

> Futbola: Zaldia-Urduliz (Lehen Erregionala), maiatzaren 23an, 16:00etan, futbol zelaian.

> Mendi urteera: Aldura (537 m), maiatzaren 24an, 08:00etan, Udaletxeko plazan.

ZORNOTZA

> 'Zu zeuk' eta 'Zex' gazteendako jarduerak. Drogomenpekotasun eta sexu aholkularitza, maiatzaren 22an, 08:00etatik 23:00etara, Zelaia zentroan.

BERBALDIA

DURANGO

> Durangaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa, maiatzaren 28an, 19:00etan, Landako Elkartegian.



ELORRIO

> Durangaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa, maiatzaren 27an, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

> 'Mundua, komunikabideak eta gu' (Victor Pozas, Deontologiako irakaslea EHUn), maiatzaren 28an, 19:30ean, Iturri kultur etxeko areto nagusian. Kainabera GKEK eratuta.

GARAI

> Durangaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa, maiatzaren 26an, 19:00etan, Udaletxean.

> Pentsino-osagarriaren legeari buruzko informazioa, maiatzaren 28an, 17:00etan, Jubilatuen Etxean. Durangaldeko Mankomunitateak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak lagunduta.

IZURTZA

> Durangaldeko Mogikortasun Jasangarrirako partaidetza foroa, maiatzaren 25ean, 19:00etan, Udaletxeko bilkura aretoan.

OTXANDIO

> Pentsino-osagarriaren legeari buruzko informazioa, maiatzaren 26an, 17:00etan, Jubilatuen Etxean. Durangaldeko Mankomunitateak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak lagunduta.

DEIAK

DURANGO

> Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

IURRETA

> 1959an jaiotakoen urteurrena: Anaitasun bazkaria, ekainaren 13an, 14:30ean, Garain. Aurretik, 12:00etan, meza, Aita San Migel elizan. Maiatzaren 30a bitartean emon leiteke izena, Ibai-Ondo kafetegian (639 52 00 94-Kontxi).

ERAKUSKETA

DURANGO

> 'Ez dira pasako', 'Lost In Durango' proiektu bekadunaren atala. Carlos Martinez. Maiatzean, Arte eta Historia Museon. 2007an, Udalak Arte Sorkuntza bultzatzeko bekak babestutako proiektua.

> 'XXV urte bidean, beti prest' (Inurri eskaut taldea), maiatzaren 22a bitartean, San Agustin kulturgunean. Argazkia eta Inurriren film laburraren emanaldia.

ZORNOTZA

> 'Josturak' (Fernando de Vicente). Margoak. Maiatzaren 31a bitartean, Zelaia zentroan.



IKASTAROAK

BERRIZ

> Sexualitatea heldutasunean. Ekainaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Hezitzailea Miriam Herbón feminista, barreterapeuta eta soziologoa (94 682 40 36 / berdintasuna@berriz.org).

DURANGO

> 'Jabetzen: sexualitatea lehenengo pertsonan', ekainaren 10ean, 18:00etatik 21:00etara, Andragunean. Izena emoteko ekainaren 3a arte (25 lagunendako lekua). Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe. Berdintasun Sailak eratuta.

> DF Bertso Zale Eskola: 'Saio moten eta gai-jartzailtzaren barri', maiatzaren 26an, 19:30etik 21:00etara, Plateruena kafe

antzokian. Irakaslea, Josu Goikoetxea.

ELORRIO

> Emakume eskolaren baitan barreterapia ikastaroa, maiatzaren



26an eta ekainaren 2an, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Ana Brea. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegia izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

> Emakume eskola: 'El amor no es cuidado ni renuncia: nuevas relaciones de pareja', maiatzaren 25ean eta ekainaren 1, 8, 15, 22 eta 29an, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Norma Vázquez. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegia izango da. Udaletxeko erregistroan emon behar da izena.

JAIK

ABADIÑO

San Trokaz jaiak

> Koadrila Eguna, maiatzaren 23an, Abadiñoko Gazte Asanbladak antolatuta: Tortilla Txapelketa, 12:30ean —tortillak aurkezteko ordua, 14:30ean—. Bitartean, graffitiak be egingo ditue. Poteoa, 17:00etan, eta ondoren punk bertsinoak egiten dituen Orkestra taldea. Herriko hainbat musika taldek bertsinoak egingo ditue 22:30ean hasiko den jaialdian.

JARDUNALDIA

DURANGO

> 'XX. mendea Durangon eta Durangaldean' X. Historia Jardunaldiak: 'Durangaldeko iragan hurbilari begirada bat irudien bidez (1960-1991)' (Nerea Mujika Deustuko Unibertsitateko Irakaslea), maiatzaren 28an, 19:30ean, Arte eta Historia Museon.

LEHIAKETA

BERRIZ

> San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa. Lanak Udak Liburutegian aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da. Sariak: irabazleak 300 euro lortuko ditu; herriko onenak, 100 euro.

BESTEAK

DURANGALDEA

> Udabarriko mendi-ibilik, maiatzaren 26an, Elorrio, Atxondo eta Abadiñogaz irteera eratu dau Durangaldeko Amankomunazgoko Adinekoen Sailak. Salburuako Ingurune Hezera joango dira, eta arratsaldean Estibalitz bisitatuko dabe (94 620 05 46 / 94 620 18 60).

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragarriko dauen kartel lehiaketa.** Lanak Gerediaga elkarteko egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

ERMUA

» **Santiagoak iragartzeko kartel lehiaketa.** Aurkezteko azken eguna ekainaren 11. Saria: 600 euro.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra: 'Txina'**, maiatzaren 25ean, 18:15etik 20:15era, Udal Liburutegian. Aurretik, eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteka@iurreta.net).

MUSIKA

DURANGO

» **Lor + Namek Planet,** maiatzaren 22an, 22:30ean, Plateruena kafe antzokian. **Rock terapia** disko barria aurkeztuko dau Lor taldeak.

» **Durango [H]ots? II. Jam Session,** maiatzaren 28an, 21:30ean, Plateruena kafe antzokian.

» **Udabarriko kontzertua: Harizko kontzertua (Bartolome Ertzillako ikasleak),** maiatzaren 25ean, 18:00etan. Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan.

» **Udabarriko kontzertua: Piano kontzertua (Musikeneko ikasleak),** maiatzaren 27an, 18:00etan eta 19:00etan. Bartolome Ertzilla musika eskolako aretoan.

ELORRIO

» **Naiz Roxa + Trigger Travis,**

maiatzaren 22an, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean.

» **Garamendi'tar Agustín musika eskolako ikasleen emanaldia,** maiatzaren 23an, 18:30ean, Arriola antzokian.

» **Barcelona Bluesgrass Band (Katalunia),** maiatzaren 28an, 22:00etan, Arriolako Ateneoan.



ERMUA

» **Vertigo Rock: Hamlet + Censurados + Damudot + Eskarmiento,** maiatzaren 23an, 21:30ean, Orbe Kardinala plazan. **Lord Witch + No Konforme + Vuelko,** 17:00etan, kalean. Musika argazki lehiaketa be izango da, eta 12:00etan, graffitiak margotuko ditue.

ZORNOTZA

» **Eleizatan: Ensemble Divertimento Clásico: 'VII. mendeko Europatik musika bidaia'**, maiatzaren 22an, 20:00etan, Boroako San Pedro basilizian.

» **Eleizatan: BIOS Orkestra (Musikeneko goi mailako tituludunek eta ikasleek osatuta), Zornotzako Ana Uriartek zuzenduta.** Maiatzaren 23an, 20:00etan, Amorebietako Andra Maria elizan. Naroa Intxaustik jardungo dau bakarlari eta Carlos Goikoetxeak pianoan.



ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Umeendako zine emanaldia,**

maiatzaren 24n, 17:00etan, Kultur Etxean.

» **Film laburren emanaldia: 'Asāmara', 'Barbaoc', 'CottonCandy', 'Midori' eta 'Kantatzen ez duen herria herri hila da' film laburrak,** maiatzaren 24n, 19:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

» **'Lejos de la tierra quemada' pelikula,** maiatzaren 28an, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ERMUA

» **Umeendako zinea: 'Misión en Mocland' pelikula,** maiatzaren 24an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

» **'Whale rider' pelikula,** maiatzaren 28an, 21:30ean, Lobiano kulturgunean. Zipristintzen elkarteak antolatuta.



Maiatzaren 22an, 22:30ean

LOR ELORRIARREN AZKEN LANA, PLATERUENEAN

Hirukote lez plazaratu daben lehenengo diskoa dena aurkeztuko dabe Lor elorriarrek, gaur, Plateruena kafe antzokian: 'Rock terapia'. Rocka eta tendentzia barriak landu ditue azken diskoan; "eboluzino naturala" izan dabe lehenengo maketa haretatik, taldekideek eurek azaldutakoaren arabera: "rockean zentratuz, AEBetako rock alternatiboa, melodikoa egiten dogu, hardcore apur bategaz nahastuta". Namek Planetek be, elorrikoak horreek be, emongo dau kontzertua Plateruenean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza
Noche en el museo 2
Zuzendaria: Shawn Levy
barikua 22: 19:00 / 22:00
zapateria 23: 17:00 / 19:30 / 22:30
domeka 24: 17:00 / 19:30 / 22:30
astelehena 25: 19:00 / 22:00
martitzena 26: 20:00



ELORRIO

Arriola antzokia
La sombra del poder
Zuzendaria: Kevin McDonald
zapateria 23: 22:30
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00



ZORNOTZA

Zornotza Aretoa
La sombra del poder
Zuzendaria: Kevin McDonald
zapateria 23: 22:00
domeka 24: 20:00
astelehena 25: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 22
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Zapateria, 23
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenciaga / Campillo / De Diego / Unamunzaga / Sagastizabal / Gaztelumendi (Durango)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Domeka, 24
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
Astelehena, 25
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murrueta Torre 2C - Durango)
09:00-22:00
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)
Martitzena, 26
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguaztena, 27
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
Eguena, 28
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
09:00-22:00
• Eguren, Cristina (Trañabarren 15 - Matiena)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOAK
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantzaz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

18 30° BARIKUA ☁
Ekaitz arriskua txikitu egingo da, termometroak berriro gorantz egingo dauen arren. Goizaldean zaparradak, baina zerua urdin mantenduko da hortik aurrera. Temperatura maximoak gitxi igongo dira.

14 23° ZAPATUA ☁
Asteburuan eguraldi eskasa izango dogu. Ekaitz arriskutik euri zaparradetara igaroko da eguraldia. Tenperaturek be beheranzko joera izango dabe, bai maximoek bai minimoek, 23°C-tik behera jaitsiz.

1 16° DOMEKA ☁
9 22° ASTELEHENA ☁
13 21° MARTITZENA ☁

durangoko udal Liburutegi berria

Durango udal liburutegi berria uri historikoan dagoen eraikin eraberritua da. Aurretik kartzela eta kuartela izan zen eta, duela gutxi, musika bandak erabili izan du entseguetarako.

Eraikinak 1.785 metro² erabilgarri ditu 5 solairutan. Egokituta dago beren zerbitzuak erabili nahi dituen pertsona guztientzat.

Gehienez 350 lagunentzako lekua dago.



BEHEKO SOLAIRUA

291 metro erabilgarri ditu. Bertan artxibo historikoa eta berau kontsultatzeko liburutegi bat dago. Durango da artxibo historikoa daukan herri bakarrenetakoa. Edozeinek ikus ditzake dokumentu digitalizatuak.



LEHENENGO SOLAIRUA

Solairu nagusia da. 441 metro erabilgarri ditu. Bertan haur liburutegia eta gune soziala daude.



Haur liburutegiak irakurgela bat dauka eta eskola lanak egiteko lekua ere bai. WiFi dauka. Gune sozialak bi gune ezberdin ditu, batetik, irakurgela (sofa, eserleku eta mahaiez atondua) eta bestetik irakurtzeko auditorium bat, musikaz jantzia.

LEHENENGO SOLAIRUA



441 metro karratu ditu. Bertan liburutegia edo irakurgela aurkitzen da. Sarbide zuzena izango da.

BIGARREN SOLAIRUA

Gela multimedia aurkitzen da bertan, 306 metro karraturekin. Bertan 18 ordenagailu egongo dira ikastaroak, konexio multimedia, hizkuntzak ikas-teko, ...

Hortaz gain, hiru gune daude batzarrak eta lan-bilerak egiteko.



HIRUGARREN SOLAIRUA



Gune malguak daude. Panel mugikorren bitartez aldatu daitezke gelen tamainak. Bigarren eta hirugarren solairuetan, gehienez ere, 100 lagun sar daitezke.

ZERBITZU OSAGARRIAK

- ABIADURA HANDIKO WIFI ZERBITZUA
- AUTO-MAILEGU ZERBITZUA



DURANGOKO
UDALA

KIROLAK >



DRT Euskadiko txapeldun

Durango Ilarduya taldeak Euskadiko Kopa irabazi du lehenengo aldiz. Mungia-Kakarraldoren kontra jokatu zuten finala Plentzian, eta ikusgarria baino gehiago lehiatua izan zen partiduan 3-0 gailendu ziren. Oro har, zelaian ez zen igarri Durangok maila bat gorago jokatzeko duela, eta zigorkolpe batek erabaki zuen finala.

Finala Plentzian jokatu zen, aurten Kakarraldo sortu zeneko 30. urteurrena betetzen delako. Errugbi zelaia etxekoen jaia ospatzeko prestatuta zegoen, baina amaieran durangarrak izan ziren berdeguneako protagonista nagusi.

Orain arteko kanporaketetan egin legez, Aratz Gallastegi entrenatzaileak gazte mailako jokalariei finaleko taldean jokatzeko aukera eskaini zien. Gazte-

ek ondo erantzun zuten. Talde lana izan zen huts egin zuena. Partiduko une konkretu batzuetan erabaki zuzenak hartzeko ahalmenik gabe ikusi zuen taldea Gallastegik: "Zelaian ez zen igarri maila bat gorago jokatzeko dugunik. Partidu batean hainbat egotara ematen dira, eta une zehatzetan argitasuna falta izan zitzaigun".

Defentsa apurtu ezinda

Mungia-Kakarraldok argi utzi zuen bere estrategia hasieratik. Defentsa lanean jarri ziren burubelarri. Eta "lan hori oso ondo bete zuten", hasi eta bukatu. Durangarrak modu guztietara saiatu ziren, baina ezin zioten probetxurik aurkitu baloiaren jabetzari. Azkenean, zigor kolpe baten ondoren etorri ziren parti-

duko puntu bakarrek. Bigarren zatiko erdialdera DRT jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen hamar minuturako, eta orduan pasatu zituzten unerik estuenak. Mungia-Kakarraldo entsegu marraren ondo-ondora iritsi zen, baina zorionez ezin izan zuten marra zeharkatu.

Horrenbestez, Durango Ilarduyak amaitu du denboraldia. Hemendik aurrera udan egon ohi diren zazpiko txapelketak prestatzeari ekingo diote. ■ J.Derteano

**Durangarrei asko
kostatu zitzaien
aurkarien defentsa
gogorra apurtzea**

24 Kulturala balentria gauzatu guran

Durango Kulturalak Bizkaiko Kopako finala jokatu du, Getxoren aurka. Ligan geldiezina izan da Getxo. Kopan eta partidu bakarrean, ordea, edozer gertatu daiteke.

25 Bittor Iruleguiren agurra bihar

Bittor Irulegui zaldibartarrak 18 urte eman ditu Zaldia futbol klubeko jokalaria. Asteburu honetan agur esango dio ibilbide luzeari, urte hauetan zale izan dituenen aurrean.

Kulturalak Bizkaiko Kopako finala jokatu du etzi

Ligako talderik indartsuena izango dute aurrez aurre: Getxo. Defentsa gogorrean eta kontraerasoan oinarrituko dute partidua



Zornotzak oso zail jarri zion finalerako txartela Durangoko Kulturalari. Kepa Aginako

Durangoko Kulturalak Bizkaiko Kopako finala jokatu du Getxoren aurka etzi, 12:00etan, Zorrozan. Getxo irabazteko faborito da, ligan erakutsi duen nagusitasuna nabarmena izan delako. Hala ere, Kulturalaren ahalak ez dira topikoetan bakarrik sostengatzen. Izan ere, ligan getxoztarrren kontrako bi partidua galdu arren horietako batean estu hartu zituzten, gauzak ondo eginda irabazi dakiekeela bistaratuz.

Gurek defentsa gotorrean eta kontraerasoan oinarrituko dute partidua; eta hortik aurrera-koak ikusi egin behar: "Futbolearen dena da posible, faktore askok eragiten dute eta gu talde orekatua gara", dio Amaia Egidazu jokalaria. Alegia, labur esanda eta topikoetara joz, "futbola futbola da", Vujadin Boskovek esan zuen moduan.

Finalerdietan Zornotza kanporatu zuen Kulturalak. Joanekoa (2-3) eta itzulikoa (1-0), bi neurketak irabazi zituen. Partidu gogorra eta intentsoa jokatu zuten Landakon. Durangarrek bazekiten edozein berdinketak

Ligan hortzak erakutsi zizkion Kulturalak Getxori, azkenean galdu egin zuen arren

A. Egidazu: "Futbolearen faktore asko daude eta dena da posible"

Irabaziz gero, bigarren aldiz jasoko lukete Bizkaiko Kopa

balio ziela, eta halaxe amaituko zen partidua Nerea Lersundi agertu ez balitz. Kantxa erdian Amaiak hasitako jokaldia bikain errematatu zuen; joanekoan ere bi gol sartu zituen, eta finalerdietako jokalaririk erabakiorrena izan da Lersundi. Finalari begira, Iker Gallastegi eta Nere Uribe ez beste guztiak jokatzeke moduan daude.

Taldea osatzen duten hainbat jokalarik badakite Bizkaiko Kopa irabaztea zer den. Oraindik Kurutzia zirenen, Zurbaran menderatu eta Durangora ekarri zuten Kopa preziatua. ■ J.D.

Goren mailan jarraitzea jokoan du Elorriokok

Liga osoko lana partidu bakarren baitan dago. Elorrioko Buskantzak Goren mailan jarraitzea jokoan du bihar Soloarteren zelaian. Talde biek 36na puntu dituzte, baina Elorrioko jaitziera postuan dago eta Soloarte ez. Biharko norgehiagoka irabazten duena seguru libratuko da. Berdinketa ere nahikoa izan daiteke Erandiotarrak taldeak galtzen badu; 36 puntu dituzte hauek ere, eta jokoan ezer ez duen Boskozaleak taldearen kontra jokatu dute etxean.

Mallabia kanpoan dago eta Durango larri dabil pilotan

Aurtengo Bizkaiko Herri Arteko Txapelketa benetan beltza ari da izaten Durangaldeko herrientzat. Mallabia kanpoan dago dagoneko, eta Durangoko aldapa gora jarri zaio kanporaketa joanekoetan.

Mallabiak hiru partidua galdu ditu Zaratamoren kontra. Gazteetan ezin izan zuen bikoterik osatu eta bueltakorako ere ezingo dute; beraz, ez dute aurrera egiteko aukerarik. Durangok esperantzari eusten dio oraindik. Kadete eta nagusi mailakoak galdu zituzten eta

gazte mailakoa irabazi. Kadeetan 22-14 galdu zuten, eta hortxe egon daiteke final-laurdenetara pasatzeko gakoa.

Bestalde, zestean Durangok ezin izan zuen Markina ahaltsua geratu. Hiru partidua nahiko erraz galdu zituen. Hala ere, txapelketa ona osatu du.

Kadeteetako lehia da Durango sailkatu ahal izateko gakoa

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Barça zapaltzailea

Joan dira egunak Kopako finala jokatu zenetik. Ez noa orain partidua aztertzeraz, baina bai Barçari buruz berba egitera. Ezertan hasi aurretik esan behar dot Barça ez dela bakarrik Athletic baino gehiago; talde guztiak baino gehiago da, Manchester United-en baimenagaz. Aurten denak zapaltzen dabil.

Bere estiloa, erritmoa, intentsitatea... Berdin da nor den aurkaria eta zein konpetizinoa; partidu hasieran, amaieran, emaitza aldeko zein kontra-koa izan, etxean, etxetik kanpora, beti inizatiba eroaten eta baloiaren kontrola (jokoarena) eduki eta lortu guran. Orain arte, ondo. Baina denok argi eduki behar doguna da:

- Talde guztiak ezin dabe Barçaren moduan jokatu, eta ezin deusagu exigitu gure taldeei horrela jokatzea.

- Barçaren estiloa futbol konbinatiboa da, oinarri moduan: gero, jokalaria oso onak daukazela indibidualki partidu bat irabazteko? Ados, baina oinarria jokalarien arteko loturak dira, baloiaren bitartez. Oraingo gazteek eta datozen generazioek jakin behar dabe hau taldeko kirola dela, eta baloia pasatu egin behar jakola lagunari, galdu baino ari-nago.

- Eta amaitzeko, aipatuko dot Barçaren ahalmena trantsizioak egiteko: hau da, baloiaren jabetza galtzen denean, taldeko kide guztiak ahalegintzen dira baloia berreskuratzen. Entrenatzaile baten helburua da jokalaria guztiak konbentzitu beharra, ahalegindu egin behar direla jakinaraztea; lan egin behar dabela, taldearen onerako.

Ustaritzen lagunartea aurkeztu dute asteon

Vancouver kanpoaldean 'Ustaritz Taldea' dioen plaka bistaratu zuen abadiñarrak

Ustaritz Aldekoa-Otalora Athletic-eko jokalaria abadiñarrak 'Ustaritz Taldea' izeneko lagunartea izango du hemendik aurrera. Martitzenean egin zuten aurkezpen ofiziala.

Jende ugari batu zen Vancouver tabernaren kanpoaldean. Lehenengo, Iluntze Dantza Taldeak Agintariena dantza eskaini zion. Jokalariai berak 'Ustaritz Taldea Abadiño' dioen plaka bis-

taratu zuen ondoren. Jarraian, Borja Romero lagunarteko lehendakariak oroigarri bat eman zion abadiñarrari. Ustaritz, "pozik eta esker oneko" agertu zen.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Joseba Garmendia, Inigo Velez, Ander Iturraspe eta Eneko Boveda jokalaria ere.

Lagunarteak 40 kide ditu gaur egun eta batu nahi duen denentzako zabalik dago.



Jokalaria abadiñarra pozik eta esker oneko agertu zen. J.D.

“Gazteek eredu moduan hartu nabe, eta hori barrura heldu jat”



Bihar jokatu du azkenengoz Zalduarekin 30 urteko zaldibartarrak. Judit Fernandez

Denboraldi hasieratik argi zeukan, baina uste baino arinago heldu ei jako eguna. 18 urte eta gero, bihar jokatu dau azkenengo partidua Zaldua taldeagaz.

17 urtean jokatu dozu harezko zelaian, eta belar artifizialeko barria estreinatu daben denboraldian erretiratu zara. Orain urte bi be iztekotan egon nintzen, baina taldeak entrenatzaile barria zeukan, eta laguntzearren jarraitu egin neban. Igaz zela barria estreinatu eben eta, zelan ez, probatu gura neban. Orain, uste dot gazteei tokia izteko sasoia iritsi dela.

30 urtegaz, ez zara hain veteranoa be. Egia esanda, azkenengo partiduetan konturatu naz kontrako taldeko jokalar askok nire edadea edo gehiago daukiela. Talde konkretu batzuetan asko nabaritu dot. Baina izteko sasoia da. Gainera, betidanik gustatu izan jat txirrindulari-

tza, eta bizikletan trankil ibiltzeko denpora gura dot. Apur bat nekatuta nago; azkenean futbolak konpromisoa eskatzen dau: entrenamenduak, partiduak... Txirrindularitza, barriz, hobbya izango da.

Zer sentipen daukazu azken partiduen atarian? Ez neban espero hain arin etorriko zenik partidu hau, baina heldu da. Ilusinoz eta gogoz nago.

Klubagaz lotuta jarraitu gura dozu? Entrenatzaile edo... Argi daukat ezetz. Ez dot uste entrenatzaile izateko gaitasunik daukanik; behintzat, ez dot neure burua entrenatzaile ikusten. Eskaini eusten gazte mailako taldea, baina ezetz esan neutsen.

Zelaian ez, baina harmailetan egongo zara? Bai, duda barik. Ez partidu denetan, baina horixe etorriko nazena! Eta izten badeuste, entrenamendu batzuetara be agertuko naz, barruko ar hori baretzeko.

Asteburuak libre izango dozuz hemendik aurrera. Bai. Pentsatu izan dot horretan, zelan bete asteburuak. Baina beti dago zer egina, bata ez bada beste. Mendizalea be banaz.

18 urte honeetako zer momentu aukeratu zeunke? Lehen Erregionaleran igoen genduen urtea oso polita izan zen. Azken jardunaldian etxean guk geure partidua irabazi bai, baina Berrizek gal-

- **Izen-abizenak:** Bittor Irulegui
- **Nongoa:** Zaldibartarra
- **Adina:** 30 urte
- **Zaldua futbol taldean jokatu dau 18 urtean, kimu mailatik nagusien mailaraino guztiak pasatuz. Futbola iztea erabaki dau orain, eta bihar jokatu dau azkenengo partidua Solobarrian.**

“Nerabea banintz, pilota aukeratu neuke futbolaren aurretik”

“Izten badeuste, agertuko naz entrenamenduren batera oraindino”

tzea behar genduan. Gure partidua lehenago amaitu zen eta beste amaitu arteko minutuak ez ditut inoiz ahaztuko: jentea mugikorren deitzen emaitza jakiteko, denok urduri... Azkenean merezi izan eban, igo egin ginen-eta.

Beterano papera egitea be egokituko jatzu gazteekin. Bai. Igarrri dot gazte batzuk eredu moduan hartu nabela, eta hori barrura heldu jat.

Ezeren damurik badaukazu? Ez, baina bai pena bat: bere sasoian pilota itzi izana. Beti gustatu izan jat. Nerabea banintz, pilota aukeratu neuke futbolaren aurretik.

Despedidarako gol bat? Azken urteetan gol bat behintzat sartu izan dot denboraldiko. Halan be, bi-hiru jokalarik taldeko pitxitxi izan gura dabe, eta nire papera beste bat izango dela uste dot. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA
OHOREZKO MAILA
Berriz - Galdakao
Domekan, 11:30ean,
Berrizburun
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)
Zaldua - Urdulliz
Zapatuan, 16:00etan,
Solobarrian

ARETO-FUTBOLA
LEHEN ERREGIONALA
Presion Break - Iturrlondo B
Zapatuan, 17:00etan,
Berrizburu kiroldegian
Mallabia - Freunde
Zapatuan, 16:00etan,
Zaldibarko kiroldegian

SASKIBALOA
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)
Julza-Zaldua - Centro Salmantino
Zapatuan, 18:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
Tabirako - Asti Leku
Zapatuan, 17:00etan,
Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA
(emakumeak-Bizkaiko Kopa)
Tabirako-Baqué - Askartza
Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA
(emakumeak)
Julza-Zaldua - Mungialde
Domekan, 12:30ean,
Zaldibarko kiroldegian
Anbotopeko - Begoñazpi
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

PILOTA
BIHARKO IZARRAK
(finalerdia)
Lau t'erdian
Aurtenetxe - Kortabarria
Binaka
Gorka-Larrinaga / Rico-Merino Hilaren 21ean,
21:30ean, Mallabiko frontoian

ERRUGBIA
10EKO TORNEOA
DRT / Gaztedi / Santander / Arrasate / Atco San Sebastian
Zapatuan, 15:00etan,
Arripausuetan

Hiru ziklista fitxatu ditu Cafés Baqué taldeak

Daniel Domínguez, Andrés Sánchez eta Antonio Salmerón taldera batu dira

David Gutiérrez, Luis Estévez eta Toni Garcíaen hutsunea betetzeko, Cafés Baqué hiru txirrindulari fitxatu ditu denboraldia amaitu arte: Daniel Domínguez (Fuenlabrada taldeak), Andrés Sánchez (Cosaor) eta Antonio Salmerón (Caja Rural). Cafés Baqué hiru lasterketa korritu zituen joan zen asteburuan. Espainiako Kopari zegokio-

nean -LLobregaten- ezin izan zuten lehen hamarretan sartu. Kantabriako Kopan, aldiz, Carlos Juez 26 urteko gasteiztarrak lagarren amaitu zuen sprintean. Cafés Baqué bi bider geratu da bigarren Espainiako Kopako lasterketan: “Denboraldia luzea da eta garaipena iritsiko dela sinisten dugu”, dio Ruben Gorospe zuzendariak.

SAILKAPENAK >>

Futbola / 3. maila / 4. taldea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Jaitsiera Fasea / gizonak		Saskibaloia / 1. maila / Euskadi / emakumeak	
1- Lagun Onak.....	73	15- Eibar B.....	44	1- Bera Bera.....	24 (+501)
2- Amurrio.....	73	16- Kulturala.....	43	2- Ardoi.....	24 (+277)
3- Elgoibar.....	70	17- Zarautz.....	42	3- Abaroa.....	24 (+308)
4- Portugalete.....	70	18- Ordizia.....	40	4- Gemika.....	22 (+363)
5- Beasain.....	70	19- Alaves B.....	32	5- Tabirako.....	19 (+245)
6- Gemika.....	56	20- San Ignacio.....	19	6- Atletico SN.....	19 (+63)
7- Basconia.....	56			7- Getxo.....	19 (+85)
8- Laudio.....	50			8- Obenasa.....	18 (+86)
9- Zamudio.....	49			9- Arabako EHU.....	16 (+42)
10- Amorebieta.....	48			10- Irlandesas.....	11 (-262)
11- Leioa.....	47			11- Uni. Navarra.....	10 (-90)
12- Arenas Getxo.....	47			12- Easo.....	9 (-269)
13- Zalla.....	46			13- Las Gaunas.....	9 (-287)
14- Santurtzi.....	46			14- Artieda.....	9 (-188)
				15- Astigaraga.....	4 (-456)
				16- Deusto-Loiola.....	3 (-418)



Durangoko Kulturalak 44 gol sartu eta 50 jaso ditu orain arte

AMALURRA[>]



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Mogikortasun planeko prozesu parte-hartzailea martxan

Eskualdeko biztanleek euren ekarpena egiteko aukera daukie egunotan antolatu diren foroetan

Ekainean foro honeen bigarren erronda egitea aurreikusi dabe Udaltalde 21ekoek

Eskualde mailako diagnostikoa aurkezten dabilz herririk herri, foroan bitartez; ekarpena egiteko aukera be badago bertan.

U rtea hasteagaz batera ekin eutsien Durangaldeko Udaltalde 21ekoek Mogikortasun Plana garatzeari. Amankomunazgoak bultzatzen dau egitasmo hori, eta Eusko Jaurlaritzako Ingarugiro Sailak babestu egiten dau. Orain, egoeraren diagnostikoa egin ondoren, planaren osaketarako beste fase bat abiatu dabe: prozesu parte-hartzailea. Herririk herri, eskualdeko biztanleek euren ekarpena egiteko aukera daukie egunotan antolatu diren foroetan.

Durangaldeko mogikortasunaren gaineko azterketa edo diagnostikoa egin dabe antolatzailerik, eta horixe bera dabilz aurkezten herrietako foroetan. Hori oinarri lez hartuta, partaideei egoera hobetzeko egin leitekenaz hausnartzeko eskatzen jake.

Eskualdeko biztanleen mogikortasuna aztertzerako orduan

hainbat ezaugarri hartu dira kontuan; motordun ibilgailuen trafikoa, esaterako. Joan-etorriak, ibilbideak, aparkalekuak... neurtu ditue. Oinezko eta bizikleta bidezko mogikortasuna be baloratu dabe: ibilbideak eta honeen segurtasuna ezagutu ditue. Garraio publikoari jagokonez, gaur egungo eskaintza eta erabiltzaileen kexak landu ditue. Azkenik, istripuak gixitzeko eta kutsadura txikitze bitartekoak jartzea be hausnartu dabe.

Foroak tresna moduan

Amankomunazgoaren ustez, "plan hau ezin da herritarren errealitatetik kanpora geratu", eta horretarako "ezinbestekotzat" jotzen dau herritarrek bertan parte hartzea. Azaldu dabenez, "plan hau mogikortasun iraunkorragoa

lortzeko tresna izan behar da". Herrietako foroak, udalen laguntzagaz garatzen dabilz.

Ekintza plana

Dagoeneko burutu dira fase honetako batzar batzuk: Mañaria, Atxondo, Iurreta, Berriz, Zaldibar eta Abadiño, hain zuzen be. Honeek falta dira: Izurtza maiatzaren 25ean, Garai 26an, Elorrio 27an eta Durango 28an.

Bestalde, aipatzekoa da bilerak ez direla hor amaituko. Izan be, ekainean foro honeen bigarren erronda egitea aurreikusi dabe Udaltalde 21ekoek. Kasu honeetan, aurrera begirako Ekintza Planaren zirriborroa auzetuko da, eta denen artean horren analisia egingo dabe. Antolatzaileek, bertan parte hartzera animatzen ditue herritarrak.

MAÑARIA 2009

XIV. NEKAZAL ETA ARTISAUTZA AZOKA



MAIATZAK 24

XIV. NEKAZAL ETA ARTISAUTZA AZOKA

XII. AHUNTZ AZPI GORRIEN MONOGRAFIKOA

Goizean zehar:

- ANTUXUMEAK BURDUNTZIAN ERRETA
- MAÑARIKO DANTZA TALDEAK
- SARI BANAKETA

Arratsaldean:

- PILOTA PARTIDUAK 18:00ETAN

Bengoetxea - Apraiz

Berasaluze VIII - Zearra





**guztiok
gonbidatuta
zaudete!**

IRAGARKIAK

LANA

-Eskaerak
-Eskaintzak
ETXEBIZITZAK
-Salgai
-Errentan eman
-Errentan hartu
-Pisua konpartitu
IRAKASKUNTZA
-Klaseak hartu
-Klaseak eman
MOTORRA
-Salgai
-Erosi
LOKALAK
-Errentan eman
-Errentan hartu
ANIMALIAK
-Salgai
-Erosi
BESTEAK
-Berba egin
-Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

• Bidali ANB (tarte) eta zure iragarkia 7789 zenbakira.
Mezu bakoitza:
1,2 euro + BEZ
• Deitu 94 621 79 02 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

OHARRA

Eroski Movilek ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

LANA

ESKAERAK

Abadiño. Arratsaldetan taberna baten lan egiteko emakumea behar da. Kontratu eskaintzen da. Esperientzia eta autoa izatea baloratuko da. Tel.: 646 804 999

ASEBI erakundeak bolondresak behar ditu. Parte hartzea eta laguntzea gustuko duenak izena emon dezala. Tel.: 94 447 33 97 / 685 782 365. E-mail: asebi@telefonica.net. Sancho Azpeitia kalea, 2 behe, 48015 Bilbo.

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizeko 07:30etik 11:30era. Umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Kotxea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Etxetresna elektrikoen denda berrian lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 13 52

Durango. Zerbitzaria behar da jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko. derrigorra da esperientzia izatea, kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.823. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durangaldea. Gasteizko enpresa batek gaztelera, ingeleza eta hinduaren interpretea behar du eskualdean aritzeko, Durangaldeko enpresa bateko langile eta indiar talde baten artean interprete-lanak eginez. Derrigorra da hindua menperatzea edo han jaioa izatea, ingeleza eta gaztelera jakitea be bai. Komenigarria litzateke esperientzia izatea antzeko lanetan. Erreferentzia: 3.092. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Berriz. Informatika-aplikazioen programatzailea behar da, gestio aplikazioen inguruko ardura hartzeko. Derrigorra da arcgis eta .net-en esperientzia izatea. Lanaldi osoan eta froga epean, luzatzeko aukerarekin. Berehala hasteko. Erreferentzia: 3.117. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Ileapaintzailea behar da, ohiko funtzioetarako. Derrigorra da arloan formazioa izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.293. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da: instituzio, garbiketa enpresetan... produktuak aurkezteko komertzial postuan aritzeko. Derrigorra da esperientzia izatea, karneta eta kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.432. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. Zenbaki-kontroladun fresatzeko makinarako operadorea behar da. Derrigorra da bi urteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Froga epean, luzatzeko aukerarekin. Erreferentzia: 3.517. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Abadiño. MIG-MAG soldatzailea behar da. Derrigorra da urte bateko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Froga epean, luzatzeko aukerarekin. Erreferentzia: 3.519. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Iurreta. Automozioko elektrizitateko teknikaria behar da, ibilgailuen konponketa eta mantenurako. Ordezko moduan lan egiteko kontratua. Derrigorra da elektromekanikan edo automozioan titulua izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 3.744. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. LH edo diplomatura eginda izatea beharrezkoa da, baita esperientzia izatea ere. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Mutil euskalduna edozein lan egiteko prest, gura denean inkorporatzeko aukeragaz. Tel.: 663 109 744

Edozein lan egiteko prest nago, nagusiak zaintzeko, adibidez. Tel.: 660 024 885 (Victor)

Umeak edo nagusiak zaintzeko prest nago, 16:00etatik 21:00etara. Tel.: 616 232 975 (Elena)

Umeak zaintzen lan egin nahi dut, 24 orduz edo kanpotik etorrita. Erreferentziekin. Tel.: 610 376 582 (Mari)

Etxeak garbitzen edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Egun osoz edo erdiz, eta asteburuetan ere bai. Tel.: 648 669 478

Neska umeak zaintzeko, tabernan lan egiteko edo etxeak garbitzeko prest. Tel.: 639 847 627.

Astean zehar arratsaldeak portalak garbitzeko prest nago, baita gauaz tabernak garbitzeko ere. Tel.: 637 055 978 (Esti).

Emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 607 086 090

Durangoko neska umeak, etxeko lanak egiteko eta dendari lanetarako prest. Tel.: 639 036 653

Goizean lanaldi erdiz lan egiteko prest nago, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko. Erreferentziekin. Tel.: 650 610 194

Autonomo eta enpresa txikientzako aholkularitza: zergak, kontabilitatea, fakturazioa... Tel.: 655 725 252

Eraikuntzan, margolari laguntzaile moduan, lorezaintzan edo arotz moduan lan egiteko prest nago. Tel.: 696 356 551

Nagusiak zaintzeko prest nago, interina moduan edo kanpotik etorrita. Erreferentziekin. Tel.: 650 102 636

Interina lez edo kanpotik etorrita lan egiteko prest nago: nagusiak eta umeak zaintzeko edo tabernen garbiketarako. Orduka ere lan egingo nuke. Tel.: 680 302 861

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Pisua salgai Errioxan, Casolareinan. 20 m2-ko txokoarekin. Tel.: 657 773 787

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 678 836 050

Elorrio. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, estudioa eta trastelekua. Guztiz berriztua, oso eguzkitsua eta polita. Tel.: 617 787 165

Durango. Pisua salgai. Berriztatutako etxebizitza. Kanpora ematen du eta berogailua du. Ikuspegi ederrak. 60 m2, 2 logela, bainugela eta egongela altzariz hornitutako sukalde amerikarrarekin. 2 balkoi. Aparkaleku partikularra. Tel.: 635 727 937

Torre vieja erdialdean, logela bateko apartamentua salgai. Sukalde frantsesa eta klimatizadorea. Los Naufragos hondartzatik 10 minutura. 63.000 euro. Tel.: 675 710 536

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai udarako Torre viejan. Bi gela, sukaldea eta egongela, terraza handia eta garajea ditu. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 645 716 847. (Rosi)

Otxandio. Lagun bat edo birentzako etxebizitza alokagai. Apartamentu berria da. Tel.: 605 773 721

Conilen etxebizitza bat alokagai. 3 logela, 2 komun, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Conilen etxe berria alokagai. 2 logela, komuna, sukaldea, jardina eta barbakoa. Zonalde oso lasaia. Tel.: 600 596 538

GALDERA:
Athleticeko zein jokalariren lagunartea inauguratu dute asteon?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo astekaria@anboto.org helbideetara, Hilarren azken alean agertuko da irabazlea.



Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola-Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Alokatzeko baserri txiki baten bila nabil eskualdean.
Tel.: 656 791 027 / 638 098 671

Elorrio. Garaje bat behar dut alokairuan. Tel.: 658 739 583

Abadiño. Alokatzeko pisu bila gabiltza Zelaietan.Tel.: 699 295 914

KONPARTITU

Elorrio. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. Tel.: 634 462 503

IRAKASKUNTZA EMAN

Autodefentsa klaseak. Bakarka edo taldeka, ordutegi irekian. Tel.: 610 697 412. (Belen).

MOTORRA SALGAI

Fiat Tipo salgai. 100.000 km ditu eta

600 euroan saltzen dut. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

Renault Megane salgai. 2007ko abendukoa. Beltza da eta bost ate ditu. Diesela. 15.000 euro. Tel.: 655 712 105

Ford Galaxy 1900 tdi salgai. 130 zp, 2004ko maiatzekoa. 95.000 km. 7 jesarleku. Margotu berria. Tel.: 636 339 971

Fiat Punto 1.200 salgai. Gasolinakoa. 1995 urtekoa da. 750 euro. Tel.: 667 746 645

LOKALAK ERRENTAN EMAN

Durango. Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

ANIMALIAK SALGAI

Alemaniar artzai-txakur kumeak salgai. Pedigreedunak, ikusgarriak.

350 euro. Tel.: 655 749 239

Border Collie txakurkumak salgai. Tel.: 627 417 822

Poney zuri-beltza eta behor beltza salgai. Izaera onekoak zelairako. lurretan. Prezio merkea. Tel.: 686 915 282

Txakurkumak salgai, Mastin arrazakoak. Tel.: 94 681 50 37

Asto arra salgai. Urte bi eta erdikoa da. Paperak ditu. Prezio onean. Tel.: 656 772 994

BESTEAK SALGAI

Akordeioa. Paolo Soprani 96 baxua. Tel.: 665 738 563. (Joseba).

Karro denda salgai. Oso ondo hornitua eta zaindua. Tel.: 658 759 264. Ima.

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono salgai. 120 euro bakoitza. Tel.: 660 085 720

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etxerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezkerra lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekgaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berrikusia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

Egoera oneko CD erreproduzitzailea erosiko nuke. Tel.: 625 92 10 57

BEREZIAK

45-50 adin tarteko lagun bila nabil, arratsaldero ibilaldiak egiteko txakurrarekin eta abar. Tel.: 636 847 262

INMOBILIARIAK

ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamento berriak salgai.
- Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
- Abadiño: Txalet bifamiliarra lur eremuarekin salgai.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
- Atxondo: Baserria salgai.
- Erretentxu: Adosatuak eraikitzen.
- Erretentxu: Txalet bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Anbrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
- Andra Mari: Estudioak guztiz berriztuta.
- Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. (135 m2).
- Antso Eztegiz: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
- Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
- Arriluzea: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna. Balkoia eta atikoa.
- Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela eta komuna. Terraza.
- Barrenkale: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
- Montebideo: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza eta ganbara. (150 m2)
- Ermodo: Halla, egongela, sukalde-jantokia, 2 logela, 2 komun.
- Erretentxu: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta 2 komun. Balkoia.
- Ezkurdin: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun.
- Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoia.
- Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
- Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
- Herriko Gudari kalean: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
- Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
- 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
- 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
- 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durangaldea: Baserri eta txalet ezberdinak, Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Mañaria: Etxebizitza erdi berria bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. Izugarria.
- Landako: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 2 terraza eta garajea. Ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.
- San Inazio: Beheko solairua. Pertsona ezinduendako aproposak.
- Madalena: 135 m2-ko etxebizitza. 4 logela, egongela, jangela, sukaldea, despentsa, 2 komun eta bainugela. Balkoia. 2 ganbara eta garaje bikoitza itxia.
- Madalena: 2 edo 3 logelako etxebizitzak.
- Herriko Gudarien kalean: 135 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Oso eguzkitsua. TERRAZA handia. Garajea eta trastelekua.
- Tronperri: Ezin-hobea. 3 logela, egongela, sukalde berria jantzia eta 2 komun. Garaje itxia eta ganbara. Prezio onean.Bizitzen sartzeko prest.
- Murueta Torre:Leku-aldatzea dela eta etxebizitza ezin-hobea saltzeko premia. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta trasteleku.
- Landako-Txibitena: 2 eta 3 logela.
- Txibitenan: 3 logela, egongela, 3 komun, sukaldea eskegitokiarekin. Balkoia. Garaje aeta trastelekua.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Franzisko Ibarra: 100 m2. Eraikuntza berria. Pisu altua. Terraza. Garaje itxia.
- Murueta Torre: Azkeneko solairua terrazarekin. 3 logela. Garajea eta trastelekua.
- Mendizabal: 2 logela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea.
- J. Olazaran kalean: 2 logela. Erdi berria.
- Tronperri: 115 m2. Guztiz kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txokoa.
- Astxikin: Estreinatzeko. 2 logela. Ganbara eta garajea. Terraza.
- Tabiran: 2 eta 3 logelako etxebizitzak. Berriak.
- Durangon: Eguzkitsua. 168.280 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- San Ignazio: 3 logela eta 2 komun. Kanpora ematen du. Eguzkitsua. Terraza. Garajea aukeran.
- Antso Eztegizen: 3 logela, komuna eta egongela. Terraza. Eguzkitsua.
- Ezkurdin: 150 m2. 4 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. Aire girotua. Garajea.
- Ezkurdin: 70 m2. 1.go solairua.
- Mikeldin: 4 logela eta 2 komun.
- Sasikoa: 2 logela. Erdi berria.

IURRETA

- Bidebarrietan: 3 logela. Igogailua. Terraza. Bizitzen sartzeko prest.
- Maspe kalean: 3 logela eta egongela. Igogailua. Berogailua eta terraza. Bizitzen sartzeko prest.

ABADIÑO

- Estreinatzeko. 1 eta 2 logelako etxebizitzak. Egongela, 2 komun eta sukalde jantzia. Ganbara eta garajea. Guztiz kanpora ematen du.
- A.Baesclin: 3 logela. 192.000 €.
- Trañaetxosten: 3 logela. 210.000 €.

LOKAL KOMERTZIALAK

- Iurreta: 255 m2. 1.380 €.
- Landako: 60 m2. Guztiz egokitu. 650 €.
- Barrenkalen: 40 m2. 93.000 €.
- Ibaizabalen: Alokairuan. 60 m2-tik 100m2-ra.
- Oiz kalean: 60 m2. 125.000 €.
- F.J. de Zumarragan (Madalena): 75 m2. Salgai.
- Iparragirren: 35 m2. 60.000 €-tan salgai.
- Landakon: 150 m2. Salgai edo alokairuan.

ETXEBIZITZA ALOKAIRUAN

- 550 €-tik hasita.

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 € -tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 € -tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despentsa.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

MATIENA-ABADIÑO

- Txinurrisoloko: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.

JAKA

- Apartamentua. 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje aeta trastelekua. Ia berria. Estreinatzeko.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >

	* Irudiko hegaztia	▼		Gurtu	▼		Esnea biltzeko zurezko ontzia
	Hortzen habiak			Berrizko auzoa			
	►			▼			▼
	Sexu emea	►					
	Harrapatuak						
Basa egoera-tik atera	▼		Ate inguru	▼			
Toka, ninteke			Pertsona irekia				
►		▼					
Barau egin	►						
Jostailu birakaria							
►				Nafarroako urtegia	►		
				Izaera, adiurre			
Letoniako herria	►			▼			Itxura
Aurpegia							
►						.Kontso-nantea	►
						Barazki lekadun	▼
Uzta	►			.iridioa	►		
Haur hizk., musu				Nahastura trinkoa			
►			Gipuzkoako ibaia	►			
			Estrontzioa				
Enperadore errusiarrak	►	▼					
Turkiako hizkuntza							
►							

SUDOKU >

1	5			6	4	1	7	8
			2					
6				8	1	5	2	3
				3	5	9		
4	5	2		7				6
9				6				1
1		3	9		6			
	7	5		2				4
3				8	2			

2	9							7
			5		2	6		
2	3		1					
	8	6					5	
			7			2		
	7			1	8			
		8		7				9
1			2	8				
	4		6					

2	8	5	1	3	9	6	4	7
9	7	6	8	2	5	1	3	4
6	1	3	5	7	4	8	2	9
4	9	6	8	1	3	5	2	7
8	3	2	7	5	1	6	4	9
1	5	7	4	2	6	9	8	3
5	6	8	7	1	4	3	2	9
3	4	9	2	6	1	8	7	5
7	8	4	3	6	5	9	1	2

7	6	5	4	8	3	9	2	1
4	3	6	7	5	1	2	8	9
5	2	1	9	3	6	8	7	4
6	8	3	9	2	7	1	4	5
1	9	4	2	7	5	3	6	8
3	6	8	1	9	4	5	2	7
2	5	7	3	1	8	6	4	9
8	1	2	6	4	9	3	5	7
9	7	5	8	3	2	1	6	4

V	R	E	I	K	R	U	L
K	V	R	V	S	L	•	
V	L	O	R	U	•	V	P
R	I	•	U	L	I	Z	•
L	•	V	I	V	S	I	B
•	I	L	V	P	V	L	•
V	S	E	•	V	B	I	Z
U	L	U	V	R	V	B	•
K	E	K	E	T	N	I	N
I	R	V	T	V	•	Z	•
V	U	T	V	•			
K	V	O	H	V			
•	J	•	V	•			

HOROSKOPOA >



Aries

martxoak 21 - apirilak 20

Batzuetan belarriak jaitsi eta onartu egin behar izaten da. Dena ez dogu ondo egiten; akatsetatik be ikasi!



Taurus

apirilak 21 - maiatzak 20

Beti zenbakiak gora eta behera. Batu, kendu, zatitu... aste honetan pozteko motiboa emongo deusue zenbakiek.



Gemini

maiatzak 21 - ekainak 20

Dirua, maitasuna eta osasuna. Krisi sasoiari gagoz; maitatua izatea ez da erraza. Zaindu egizu, gitxienez, zure osasuna!



Cancer

ekainak 21 - uztailak 20

Ordenagailua ez dozu konponduko kolpeak emonda. Bizi luzea izan daien, komeni da konputadorea mimos zaintzea.



Leo

uztailak 21 - abuztuak 23

Normala da bikote batean haserraldiak izatea. Guztiak dauka konpon-bidea, halan be. Saiatu aste honetan arazoa baretzen.



Virgo

abuztuak 24 - irailak 23

Irribarrez begiratu geroari. Zer datorren jakin ez arren, etorkizun atsegina izateko esperantza izan beti. Ondo pasatu!



Libra

irailak 24 - urriak 23

Aste honetan garrantzi berezia emon egiozu zure gorputza eta burua askatzeari. Atera izerdia eta ideia txarrak barrutik.



Scorpius

urriak 24 - azaroak 23

Maitasuna ei da bizitzaren motore. Besteek zu maitatzeko, zuk be asko maitatu egizuz. Ipini praktikan gaurtik aurrera.



Sagittarius

azaroak 24 - abenduak 23

Eguerdiko pintxo, arratsaldeko mokadua... ez dozu modu egokian jaten. Umeei litxarreriarik ez jateko esatera ausartzen zara?



Capricornus

abenduak 24 - urtarrilak 20

Ezin zara lotan geratu. Halan izanez gero, besteren batek aurrea hartzea posible izango da. Ez pentsatu zure usoa kaiolan daukazunik.



Aquarius

urtarrilak 21 - otsailak 18

Disketeen sasoi pasatu zen. Erabili egizuz USB memoriak. Memoria onena, baina, norberarena.




Piscis

otsailak 19 - martxoak 20

Txokolatea ei da sexuaren ordekoa. Zuk zer izango dozu? Badaezpada, ez dator txarto armairuan txokolate apur bat edukitzea.

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra Santa Ana 6, 48200 durango



Ane Zabalak maiatzaren 19an bost urte egin zituen. Zorionak eta mosu handi bat, familia osoaren partez.



Maiatzaren 17an **Begoren** urtebetetze eguna izan zen. Afarian ederto pasatu genduen. Hurrengoa noiz?



Larraitzek maiatzaren 20an urteak egin zituen. Zorionak! Beste afari-parranda bat antolatu behar dogu!



Maiatzaren 26an **Rebekak** 18 urte egingo ditu. Zapatuan lehen tragoa zure kontura! Ondo pasatu eguna 18 urte behin egiten dira-eta.



Astehenean **Matxalenek** 20 urte egin zituen. Animo asko Frankfurtetik lehen paitarra. Zorionak. Asko gogoratzen naz zutaz. Miren.



Araitz Magunazelaia **Zuazo** maiatzaren 18an jaio zen. Zorionak umetxo honen aitatzari eta amatzari, Mikelen partez.



Zapatuan, maiatzaren 23an, lurretako **Miren** eta **Ezkiele** urrezko ezkontzak ospatuko ditue. Mosu handi-handi bat familia osoaren partez, eta egun on-ona pasatu daizuela.



Eguaztenean, maiatzaren 20an, urteak egin zituen **Maritzuk**. Zorionak Moñitaren partez. Holan jarraitu!



Hamabostero, zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dogu. Beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

EKODEN

HORTZ KLINIKA



Arkotxa, 4 etxabea
DURANGO
Tel. **94 621 78 22**

*Hortz-protezia mugitzen bazaizu,
implanteen bidez hezurrera
finkatzeko tratamenduak jartzen
ditugu zure eskura*



*Ortodontzia-
tratamenduak,
marruskadura
txikiko braqueten
bidez, urte betean*



mutualia

**Itunpeko
Klinika**

% 5 ETIK 10 ERA
A R T E K O
BEHERAPENAK
H O R T Z -
INPLANTEEN
TRATAMENDUETAN

**Zure tratamenduak 12 hilabetetan
finantzatzen ditugu, interesik gabe**

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com
harritu egingo zara



Jon Artza
Soziologoa

Yaw, milioigarren euskalduna

Estatistiken arabera, jada milioi bat euskaldun gara Euskal Herrian. Zifra potolo hori Yaw-ri egokitu zaio, haatik, Euskal Gobernuaren eskutik milioigarren euskalduna dela ziurtatzen duen diploma bat jasoko du. Estatistikek 6 urte-tik gorako hiztunak aintzat hartzen dituzte, eta berak pasa den astean bete zituen.

Yaw etorkinen semea dugu. Yawren aitona Gogo-n jaio zen. Urte luzez, Erresuma Batuko kolonia izaki, beraien urrezko meatzetan lan egin zuen. Egun osoko jardunak burutzen zituen, janari apur baten eta logela baten truke. Aurkitutako urte kopurua handia zenean, lau txanpon eta arropa apur bat ere ematen zioten.

Yawren aitak, Kofik ez zuen zorte hoberik izan. Ordurako, Gogo estatu independentea bazen ere, aukera bakarra kakaoaren multinazional batentzako lan egi-tea zuen. Ordu luzeak lanean eta soldata miserable bat ordainetan. Lan baldintzak hobetzeko asmoz, langileak batu eta eskakizunak egiten hasi ziren. Hori ez zen multinazionaleko zuzendari eta Gogoko menpeko gobernua-ren gustuko izan, eta ondorioz kaleratua izan zen. Iluntasunetik ihesi, argi bila txalupa txiki baten itsasoratu zen. Itsasertz idorretan, bel-durrez eta nekez lehorreratu ostean, iparraldera abiatu zen. Apurka-apurka, bertakoen laguntzarekin, lanean hasi eta errotuz joan zen.

Yaw oso errotua dago eta futbolari zurigorria izateare-kin amets egiten du. Hala ere ez du bere jatorria ahaztu. Udan Gogora joan eta bere aitona Gizon Zurien Herrial-dean eman dioten diploma erakusteko desiratzen dago.

"Koruak garatu egin dira, beti elizagaz lotzen gaitueen arren"

'Oh Happy Day' telebista programako casting-ean parte hartuko dau Jasokunde abesbatzagaz

Bost urtetik hona Malla-biko gaztetxoek Jaso-kunde abesbatzaren zuzendari da Iratxe Uribelarra, eta beste horrenbeste daroaz guraso eta lagun talde batek sortutako Mendibil be gidatzen. Gaztetxoekin 'Oh Happy Day' telebista programako casting-ean dabilela eta egin dogu hitzordua musika irakasle honegaz.

22 urtegaz, gazterik hasi zinen zuzendari...

Izan leiteke. Geroago eta gazte gehiagok hartzen dogu ardura hori. Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen ikastaroetan geroago eta gehiagok dihardu. Eibarren eta Hondarribian jardun neban.

Zelan hasi zinen lan horretan?

Betidanik abestu dot. Jasokunde abesbatza sortu zeneko talde haretan hasi nintzen, 13 bat urtegaz, eta zuzendari orain bost urte. Zegoenak ardura izterakoan inor ezin topatu ibiliginen, eta animatu egin nindueen. Proba lez hasi nintzen, ezer jakin barik, baina gustura nabil; lanean hasita ikasten da. Betirako ez dot uste izan-go denik, baina, urte batzuetan jarraituko dot. Bada apur bat gogorra, bere denpora behar dau-eta.

Gaztetxoekin diharduzu...

Eskoletan elkartzen gara, astean birritan, ordubete t'erdia. 13-26 urte arteko 15 lagunekoa taldea da.

Zenbaki polita.

Nahikoa! Urteetan eutsi deutsan eta jarraitzen dauen abesbatza gara, gainera. Ez da erraza!

Eta, orain, 'Oh Happy Day'-ren casting-ari heldu deutsazue!

Lehenago be deitu euskuen, baina ezetz esan genduen. Orain, baina, prest agertu dira gazteak eta

probatzera animatu gara. Federazioaren bitartez jarri dira hartu-emonetan Euskal Herriko hainbat abesbatzagaz. Telebistan emongo den 'Oh Happy Day' bidean' zati horretan 14 abesbatza hasi gara, eta zortzi geratuko dira 2010ean egingo den lehiaketarako. Asteon emongo dabe aurreneko saioa; maiatzaren 31n agertuko gara gu.

Zer maila dago?

Talde benetan onak dagoz, baina, ahalik eta urtinen ailegatzen saiatuko gara; irabazten saiatuko gara.

'Reality show' kutsua dauka...

Gutziz! Kostatuko jaku aurrera egi-tea, ez gagoz-eta ohituta, eta holan bada lan asko egin beharko dogu; batez be, koreografian. Abestiaren arabera, inoiz dantza edo mogi-mendu txikiren bat jarri dogu... baina, askoz gehiago eskatzen da.

Zer behar da irabazteko?

Lehenengo denboraldia lantzean behin jarraitu neban. Gitxi desafinatzea, ondo abestea, prestatuta eroatea... izan ei ziren kontutan hartutakoak. Ondo deritzot, eta irabazi ebenek merezita irabazi eben, baina abesbatzekin lotura askorik ez daukie epamahi-koek...

Koruen kutsu serio edo formal hori aldatzeko era izan leiteke?

Egia da askotan abesbatzak bes-telakoekin nahasten direla.

Iratxe Uribelarra

Herriko abesbatza biak zuzentzen ditu

'Oh Happy Day' programako casting-ean sartu dira

Abesbatzak orain eta orain 10 urte. Eboluzinorik egon da?

Bai. Abesti alai edo modernoagoak dagoz gaur egun... elizagaz gitxia-go lotutakoak be bai, igual. Abesti asko erlijinoagaz lotzen dira; asko latinez direlako be bai, berez zerikusirik izan ez arren. Lehen eta orain elizagaz lotzen gaitue abesbatzak: egia da kontzertua emoteko elizara bideratzen gaitueela askotan, baina, akustikagaitik da.

Durango Bartolome Ertzilla musika eskolako abesbatzako kide be bazara. Alderik somatuko dozu...

Mallabiko gaztetxoek abesbatza da, batez be. Durangon be gazteak gara, baina beste maila bat da.


Musika irakasle be bazaren alde-tik, zelan irakasten da musika?

Ezin leiteke guklez hartu, solfeoa-gaz jo eta su... Astean irakasgai bat daukagu, matematiketan lez, eta solfeo apur bat ikasi arren, abes-tu edo txirula, perkusino-tres-nak... jotzen doguz. Lasaitasunez.

Musikak piztiak baretzen ditu...

Batzuetan bai. Aurten gertatu jat lau urteko gela baten musika klasikoa ipini eta ume bat negarrez hasi izana. Nahiko sentikorra be bada, baina, harrituta geratu nintzen. Umeei

musika gusta-tzen jake.



ETORKIZUNA ZIURTATUTA!!

IURRETA
INSTITUTUA

ATE IREKIAK

Maiatzaren 26an, 16:00etatik 19:00etara

Praktikak atzerrian egin daitezke

Erdi mailako zikloak • Goi-mailako zikloak • Automozioa • Administrazioa • Elektronika • Fabrikazio mekanikoa • Informatika

Tel.: 944.66.88.00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net